

GOIERRITARRA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. *Goierriko euskaldunon aldizkaria.* 5 zenbakia 1990ko apirila. 175 pzta.



- **INGURU HAUETAKO ORDU ESTRA ESKANDALOGARRIAK**
- **TERE IRASTORZA IDAZLEAREKIN**
- **ASTE SANTU BIZIA SEGURAN**
- **INKESTA: ZERTAN DA ORDIZIAKO KALEETAKO ISTILUA?**
- **BERTSOLARITZA GOIERRIN**
- **ERLEAREN POZOINA BOTIKA OTE?**
- **ZERAINGO «PETREKILO» OSPETSUARI JUSTIZIA EGINEZ**



● GOIERRITARROK ETA SAGARDOTEGIAK

● XABIER MENDIGURENEN IPUI FANTASTIKOA...

• ... **BESTEAK BESTE**

Plan on bat baduzu gogoan kontutan izan Kutxa.



Si quieres un buen plan
cuenta con la Caja.

Para que encuentres el Plan a tu medida, sólo tienes que decidir cuál o cuáles te convienen más.

Para que en el futuro, las cosas salgan como tú las hayas previsto.

PLAN DE PENSIONES

PLAN DE AHORRO ASEGURADO

PLAN DE AHORRO

Zure neurriko Plana aurki dezazun, zein edo zeintzu diren zuri hobekien datozkizunak aukeratu besterik ez duzu.

Etorkizunean, gauzak zuk aurrikusi bezala gerta daitezen. Zuk nahi duzun bezala.

PENTSIO-PLANA

AURREZKI-PLAN ASEGURATUA

AURREZKI-PLANA

**AURREZKI-KUTXA
MUNIZIPALA**



**CAJA DE AHORROS
MUNICIPAL**

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Bertako txalaparta eta albistaria

1990ko Apirila. 175 pzta.

Argitaratzailea: «Goierritarra» Kultur Elkartea (Legalizatua). Dorre-etxea, behe (Correos azpia), alhondiga, 3. lokala. Tfna; 889612. 124 posta kutxa, Ordizia.

Orain arteko Udal-Herri laguntzaileak (dirulaguntza eman eta, eman ez badigute ere agindu, agindu ditugutenak): Beasain, Idiazabal, Olaberria, Lazkao, Ordizia, Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Gaintza, Zaldibia, Arama, Ormaiztegi, Gabiria, Ezkio-Itsaso eta Segura.

Erredakzioa: Josune Agirre (publizitate arduraduna), Jon Mikel Arano, Aitor Larrañaga.

Aholkulariak: Tere Irastortza eta Andoni Sarriegi.

Emaketazioa: Goierritarrok

Ale honetan kolaboratu dute: Ramon Ugalde, Koldo Zubeldia, Xabier Mendi-guren, Patxi Zubizarreta, Joxe Mari Telleria, Rafael Gerriko «Laiotz», Aran, Josune eta Lorea Agirre, Antton Alustiza, Mikel Aramendi, Aitor Zugasti, «Oriau» kolektiboa, Andoni Sarriegi, Tere Irastorza, Pello Aranburu, Elena Aseginola, Dioni Santoyo, Itsasondoko Kultur Taldea, inkestatu eta berriemak, Ateari, Rufino Iraola, Martin Auzmendi, Joxe Madariaga.

Gure eskerrik beroenak: Era batera edo bestera laguntzen diguzuenoi, bai eta aldizkariaren saltzaileei, beharrezkoa dugun publizitatea eskaintzen diguzuenoi eta nola edo hala parte hartzeko irrikitan zaudetenoi.

Fotokonposizioa: ANTZA
Inprimategia: GERTU
Lege Gordailua: SS 926/89

GOIERRITARRA aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Era guztietako laguntzaren beharrean gaude: distribuziorako, emaketatzeko, idazteko... Irakurle: zure laguntzarik onena, suskribitu zaitez, har ezazu **GOIERRITARRA** etxean lehenbaitlehen.

GAUR EDO BIHARKO

KOLABORATZAILEEI:

GURE TELEFONOA, 889612.

**EROS, IRAKURRI
ETA ZABALTZAZU
GOIERRITARRA**

KOLABORAZIORAKO DEIA

Goierriko herri guztietako kolaboratzaileen beharrean aurkitzen gara. Herri bakoitzeko hileko kronikak, berriak, balorapenak eta beste-lakoak gustora hartuko genituzke, eta bere txokoa emango litzaieke idazlanei, erredakzio lanetan ari garenok ez bait gara iristen Goierriko osoko gauzak biltzeko orduan.

Dei hau kontutan hartua izango denaren esperantza dugu: **Aldizkariaren maiztasuna ezezik bere bizi-iraupena ere arriskuan dago.**

Era berean, Udaletxe, Elkartea eta jendea orohar Goierriko eta bertako

Euskal Kultura eta gauzeekin zer ikusirik duten materialeak (klase guztietako argitalpenak edo kopiak) eskatzen dizkizuegu lerro hauetatik, artxibo bat osatu nahi bait dugu. Argitaratzea merezi dutenak ere egongo dira ziurrenik.

Baita ere kolaborazio literarioak, elkarrizketak, erreportaiak, aholkuak, abisu eta argibideak, iritzi, sormen eta arte inguruko lanak, argazkiak... benetan eskertuko genituzke.

Ordiziako 124 posta kutxara bidal ditzakezue edota gurekin kontaktoan jarri: 889612 tfna.

Etxe honetako ateak ez dira isten, parez pare, aldenikalde ditugu zabalik parte hartu nahi izanez gero.



SUSKRIBITU ZAITEZ!

«GOIERRITARRA» ETXEAN JASO NAHI DUT

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... Aurrezki Kutxa
Kontu Korrontearen Zb. TLf.....
DIRUSARRERAK: GK: 01*1.427.276-8
Ordizia

**Urtebeteko
harpidetza
saria
1500 pzta.**



124 posta kutxa. Ordizia



«GOIERRITARRA» ALDIZKARIAREN SALMENTA-PUNTUAK:

ATAUN: Troskaeta Taberna, Urbietta Jatetxea. **BEASAIN:** Basakana Taberna, Txirula Taberna, Pott Taberna, Oinarte Taberna, Gurpil Kiroldenda, Zine pareko Kioskoa, Estazio pareko Kioskoa, Lizeo ondoko Kioskoa, Loinaz taberna, Saioa Taberna, Arrano, Batzoki, Ezkertoki, Mirentxu Liburudenda, Arrue Liburudenda. **DONOSTIA:** Bilintx Liburudenda, Hontza Liburudenda.

EZKIO-ITSASO: Osinalde Taberna, Ekaitz Taberna. **IDIAZABAL:** Odei Taberna, Xume Taberna.

ITSASONDO. Ibarre Taberna, Kalea Taberna. **LAZKAO.** Zelata Taberna, Gerriko Taberna eta Liburudenda, Estanko Taberna, Giroa Taberna, Kioskoa. **LEGORRETA.** Intsausti Taberna, Olosa Taberna.

MUTILOA. Bertako taberna. **ORDIZIA.** Urdaneta inprimategia, Mujika Liburudenda, Aralar Liburudenda, Plazako Liburudenda, Estazioko Kioskoa, Zabale Dietetika, Aldasoro Taberna, Etxaniz Taberna, Alkaiaga Taberna, Siglo XX Taberna, Orbela Taberna, Olano Taberna, Leizea Taberna, Martinez Jatetxea, Pottolo Taberna, Satorra Taberna, Orlegi Taberna, Miami Taberna, Irriki, Batzoki, Zaharren Egoitza, Gaztetxea. **ORMAIZTEGI.** Zubiska Taberna, Ekaitz Taberna. **SEGURA.** Imaz Taberna, Naparrane Taberna. **TOLOSA.**

Bilintx Liburudenda, Leidorko liburudenda. **ZALDIBIA.** Illati Taberna, Zubi-Ondo Taberna, Nazabal Taberna, Arrese Taberna. **ZEGAMA.** Ostatu Taberna, Txanton Taberna, Baztartxo Taberna. **ZERAIN.** Ostatu.



Ajenda

Intereseko Telefonoak

Orokorrak

Zumarragako Eritetxea	721614
Donostiako Erresidentzia	453800
Gurutze Gorria	272222
DYA	464622
SOS Deiak	088
Eguraldi informazioa	094
Errepideen egoera	288888
Ertzantza (Beasain)	887350
Suhiltzaileak (Ordizia)	881362
Renfe (Beasain)	880853
Sarasola Garraioak	880710
Pesa Garraioak	880668
Estellessa	452949
Itxaropenaren tfna	458005
HIES-SIDARI buruzko tfna	282666
Toxikologia inform	912620420
Alkoholiko Anonimoak	276618
Goierri Lanbide Eskola	880062
Maizpide Euskaltegia	889231
Goiztiri AEK	889174 / 889340
Segura Irratia	801041 / 801341
Arlote Irratia	888093

Arama

Udaletxea	888953
Telefono publikoa	880739

Ataun

Anbulategia (S. Martin)	881025
Udaletxea	881011
Anbulategia (S. Gregorio)	881251

Beasain

Anbulategia	880759
Alkartasuna Lizeoa	887191
Hotel Urteaga	880850
Larrialdiak	880967
INB	880753
Loinazpe Ikastetxea	882644
Udaletxea	885900
Udal Euskaltegia	889094
Udaltzaingoa	881355
Zaharren Egoitza	884804
Taxiak	880367

Ezkio-Itxaso

Udaletxea	721303
Telefono publikoa (Ezkio)	720267
Telefono publikoa (Itxaso)	880315
Gasolindegia	721717

Gabiria

Udaletxea	880734
Telefono publikoa	881384

Gaintza

Udaletxea	889564
Tfno. publikoa	880274

Idiazabal

Anbulategia	801173
Udaletxea	801064
Eskola publikoak	801726

Ikaztegieta

Udaletxea	653329
-----------	--------

Itsasondo

Udaletxea	881170
Eskolak	887704
Medikuetea	881359

Lazkao

Udaletxea	886408
Anbulategia	882632
S. Prudentzio Ikastetxea	882630
S. Benito Ikastola	880800

Legorreta

Udaletxea	806225
Eskolak	806014
Izarra ostatu	806044
Taxia	806170

Mutiloa

Tfno. publikoa	801166
----------------	--------

Olaberria

Udaletxea	889193
Eskolak	881232
Castillo Hotela	882011
Tfno. publikoa	881111

Ordizia

Udaletxea	885850
Anbulategia	880967
Eskolak	882780
Kontsumitzaileen Bulegoa	881642
Kultur Etxea	881280
Gaztetxea	888092
Oianguren BIN	880862
Suhiltzaileak	881362
Udaltzaingoa	884005
Taxiak	881486
Zaharren Egoitza	888377



Ormaiztegi

Udaletxea	882660
Anbulategia	888432

Segura

Udaletxea	801006
Anbulategia	801919
Eskolak	801776
Igerilekuak	801775
Aingeru Zaind. Aterpetxea	801010
Hospital	801008
Segura Irratia	801041
Taxi	801170

Zaldibia

Udaletxea	880357
Anbulategia	880027
Eskolak	884521
Etxabe Autobusak	884105

Zegama

Udaletxea	801115
Anbulategia	801351
Eskolak	800042


Zerain

Udaletxea	801724
Medikua	801136
Telefono Publikoa	801183

Izen propialak

Oraindik denbora asko ez dela Andoni Sarriegi beasaindar itzultzaile ezagunak bi luburukote erabat tekniko eman ditu argitara «Elhuyar»-en eskutik, dexente urte eta lanen fruitu: «Materialen erresistentzia» (I) eta (II). Adituentzat.

Aitor Furundarena ordiziarra Tapiatarren familiakoa da. Soinu txikia besapean zuela jaio zela esatea bezala da hori eta oso gazterik destitatu zuten instrumentu hori jotzera. Soinu txikia ondo jotzeko, ordea, akordeoia dominatzea derrigorrezkoa zela pentsatuz, soinu handiarekin hasi zen lanean eta instrumentu horri loturik segitzeko bidean da, sariak sarien gainean irabazten baititu. Azken saria Santurtzin jokatu zen Estatu Mailako Akordeoi Txapelketan 18 urtetik gorako txapela eraman zuen. Beasaingo «Gurutx Gorria»-n kunplitzen du soldaduska, bitartean.



HERRIETATIK GOIERRI

«Oria-Urola» edizioa azkenik «Egin»-ek!

Orain hurrengo martxoaren 14ean Ordiziako Barrenan «Prensa eta Kirola» gaitzat harturik tertuliatxo egin zen, «Egin Irratia»-ko «Artzai» esatari segurarra, Alazne Iturrioz eta Josetxo Mendia —Ordizia eta Beasaingo kronista berriak—, Salba Iriarte futbolaria, Martin Alustiza pilotaria eta «Axio» eta E. Ramirez rugbilaria tartean izan zirelarik eta jendea erruz. Handik bi egunetara, Beasaingo Udaletxean edizio berriaren aurkezpena egin zen, kronistez gain Ramon Uranga, «Egin»-en kontseilari delegatua ere izan zelarik. Geroztik hor dator «Egin»-en «Oria-Urola» garaia» eranskinean Goierriko makina bat berri eta nobedade. Ongi etorri!



DEBALDEKO IRAGARKIAK

LANA

- Emakumezkoa eskaintzen da etxekolanetarako edo ume-zain. 883566 tfna.
- Neska euskalduna ume-zain edo etxekolanetarako. 881608.
- 25 urtetako gaztea pronto edozein lanetarako, soldaduska eginik eta «B-1»-etik «D» arteko gidatzeko kar-netarekin. 722188.
- Administratibo tituluduna komertzio edo enpresa txikietako kontabilitatea eramateko lain den neska eskaintzen da. Informatika tituluduna. 883781.

UBI Zientzietako gaiak emateko irakasle bat beharko nuke. Arratsaldetan. Miren, 88 99 78 telefonoa. Beasain.

- Neska, etxeko lanetarako edo ume-zaintzarako. 889405. Lazkao.
- Etxekolanetan edo umeak zaintzen arituko litzateke neska bat, bai goizez bai arratsalde 884896.

SAL-EROSKETAK

- Lokal komertziala alokatzen da Idiazabal. Dei 801444 tfnora.
- Aluminiozko apala zuriak salgai. Mostradorea oparitzen da gainera. Prezio ezin hobea. 884426. Ordizia.
- «Artzai euskaldun» arrazako zakurkumea salgai. 651887.
- Karrerista txirrindua salga (B.H.). Altxairuzkoa eta egoera onean. 12.000 pzta. 884629 tfnora.
- Zakur hispanierra salgai. Urtebete ehizatzen. 888871. Ordizia.
- Josteko makina salgai. Dei 885477ra. / Ikatzeko kalefazio oso polita eta labeduna salgai. 100 aldiz bakarrik erabilia izango zen. 672501.

ETXEBIZITZAK

- Errentan behar dut etxea Ordizian. 881240 eta 881386 telefonoe-tara dei.
- Pisua behar dut alokairuan Ordizian. Interesatuok, 886867ra dei.
- Pisu merkea, ahal balitz, behar da errentan. 887201.

AGURRAK

- Karlos Ioldi Mujikak idazten du Badajozko Laiotzetik bere Ataungo helbidea emanez eta berak ere harpidedun izan nahi duela esanez: «Kaixo! Lo siento pero tengo que es-

cribir en castellano. Os doi el número de teléfono, le explicais a mi madre de que se trata y si podeis me mandais directamente a Badajoz, ados?».

- «Hil zarella diote. Gezurra! Zu eta zure soinu aidean zaudete». **Kaja-Beltza**

emakume jator beten bila dabil harreman zintzoak edukitzeko. Idatzi Elorriko 16 postakutxara. Goierriko neskato ederrei:

17 urte gose-greban egon ondoren, egoera honekin amaitu nahi dugu. Interesatuak Ordiziako "Setorran" n igandero 9etan. Jbau eta Altor. Beasain.

jainko santua!

astesantuko pertsonaia:
Sugua
monsignorea.
Zaldibitarra berez.



"La Iglesia Española en levitación". Serie «Descubrimos»
A. Schommer

Irakurri dugu...

«Fabrika-haundi»ak txikiak jaten

CAF enpresak «Porteria»koan, hau da, Ezkiaga auzoaren aurrean, eraiki berri duen pabiloia kezka larria sortzen ari da aipatutako auzoan. Nagusitu diren protesten arrazoiak egunez bezala gaez pabiloia eragiten duen zaratan datza. (...) Baina ez da hau inkonbenientzia bakarra, auzoko bizilagunen eritziz, lanordutako hotsari pabiloi berriak instalaturik duen aspiradoaren murmurlo etengabea gehitu behar zaio, zeinak egunez ez bada gehiegi nabarmentzen ere kaleko hotsa medio, gaueko ordubatean jasan ezina da ordea. Iturriok diotenez, ez da logikoa nazioarteko merkatuan sartzen ari den CAF bezalako enpresa batek honelako txapuzak ametitzea. Arazo puntual honi kronikoak kontsidera daitezkeen beste batzu gehitzen zaizkio, komentatzen dutenez. Soluzio erraza ez duten fundizio labeko hotsez gain eta kutsaduraz gain, CAFen «tutua»ren gai zaharra dago gainera.

Josetxo Mendia,
(«Egin», martxoak 25)

«Azken alkate gipuzkoarra»

Duela 20 urte 140 lagun baino gehiago ginen eta orain 100era ez gara iristen. Ez dakit hau konpontzeko zerbait egin ahalko duen Udalak baina lurak munizipalizatzen eta herri handiagoetarako «emigrazioa» frenatzearen etxebizitzak altxatzen saiatuko gara.

Imanol Mujika, Altagako Alkate berria. (D.V. Martxoak 10)

Lazkaoko EHE

«Herria lagun, Udaletxea euskaldun» lelopean joango da Udaletxearekin harremanak euskara hutsez izatearen alde Euskal herrian Euskarazek bultzatzen duen kanpaina.

Aşmo hau aurrera eramateko lehen bilera egingo dute herriko zenbait erakunde eta elkarteak, Maizpide euskaltegia, AEK, Domarda elkarteak, Gerriko txokoa, Gerriko S.A., Goierriko Euskal Eskola, Antzar Gazteak Txaranga, EHE, HB, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Eguzki, Jarrai eta Askapena azaldu zirelarik. Bilera honetan kanpaina honen helburua eta ardatz nagusiak finkatu ziren. Helburua, Udaletxearekin harremanak euskara hutsean izan nahi dituztenen zentsua lortzea izango zen, honetarako ahal den laguntzarik handiena lortu nahi dutelarik bai elkarte eta bai erakundeen aldetik.

Mikel ALBISU

«Egin» martxoak 21,

Enerio-Aralarrekin bueltaka

Alazne Iturriotz

«Egin» martxoak 28

Enerio-Aralarrera Mankomunitatekoak diren herrietako ganaduzaleek bakarrik eraman dezakete ganadua. Mankomunitatea da administradorea. Berak jarri beharko ditu ganadua mendian utzi nahi di-



Iñaki Aizpuru, Aranzadi Elkarteko partaidea.

tuenarentzat gutxieneko baldintzak. Honela, Mankomunitateak neguan lau hilabetez mendia ganadutik libre uztea erabaki zuen. «Baina ganaduzaleek ez zuten erabaki hau errespetatu. Alperrik da neurriak jartzea, gero norberak nahi duena egiten jarraitzen badu». Aizpuruaren eritziz, «Ganaduzaleen jarrerarekin ez goaz inora. Pistak itxi behar zirela eta barrerak jarri genituen eta 2 edo 3 egunen buruan desagertu egin ziren. Ganadua biltzeko mangada zeharo txikituta agertu da. Mangada beraiek egingakoa zen eta zerbitzurik handienak beraiei egiten zien». Aizpuru «jarrera hauek piskanaka desagertzen joango dira»ela espero du.

Aizpuruaren ustez, «ez da ahaztu behar gainera istiluetan dabiltzan ganaduzalerik gehienak lantegian lan egin eta ganadua mendian libre uzten dutenak direla». Horrezgainera «jende horri mendian ganadua uzterik ez duze esaterik ez dago»ela pentsatzen du, baina «ulerterazi behar zaie aurrez ezarritako kondizio minimoak bete behar dituztela. Ganadua eduki nahi duenak eduki dezala azpimarratzen du baina ez dezala ganadua mendian negu guztian utzi».

Goierriren bazterkeriaz kexu Ordizia eta Beasaingo alkateak

Irurtzun-Andoainekin lotuko lukeen autobaien proiektu ofizialak Beasaingo EA eta EEko militante piztutako alkate beraren eta aipatutako taldeetako zinegotzien protestak eragin ditu. (...) Aurkeztu dituzten arrazoiak ez doaz ekologia aldeetik baizik eta egun Gasteizko Gobernuak aurrera daraman Errepideen Plan Orokorrari kritika egitetik. Plan Orokor honetan Irurtzun-Andoain autobaien aldean. Era honetara, aipatutako iturriek diotenez, Beasain eta Ordiziako alkateek Goierriko eskualdearentzat batere mesedegarria ez dela jotzen dute proiektu ofiziala, Iruñea-Donostiako komunikazio sarea Andoaina pasako bait litzateke, Bilbo-Durango-Beasain-Tolosa-Iruñea ardatza bezala, zeina desagertu egingo bait lirateke Gipuzkoako Diputazioaren proiektuaren gauzatzearekin eta geldituko litzatekeen lurralde estrukturarekin.

«Egin», bere egunean

LAN KIDE AURREZKIA  EUSKADIKO KUTXA

190
Sukurtsal

164
Kooperatiba
Elkartu

20.000
Lanpostua

230.000
Milioiko Aurrezkia

**Euskadiko
Kutxa**



**CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AURREZKIA**



LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00
B E A S A I N

Kaletik dator zarata, tabernetatik hotsa; istiluak eta ixkanbilak nondik Ordizin?

Galdera: Zertan da tabernari/udaletxe, herritar/ertzainen e.a.-en arteko kalapita?

Goierritarrok

Istilua hortan dago. Ertzainekin ezin duzu nahi bezala ibili, beti kontuz, beti egon behar zara adi eta beren beldurrez zergatik beraiek dute boterea eta indarra hemen eta horren erabilera nahi adina egingo baitute.

Tabernetako musika dela eta, esate baterako, Gaztetxeko larunbategiako kontzertuak direla eta inguruko keja ugari izaten omen dela eta (ez zait iruditzen hala denik), dena izurratu nahi digute gazteoi. Aste osoa porru eginda pasa ezker lanean-edo eta asteburuetan zer gutxiago? Horretarako dira jaiegunak, desaogatzeko, musika eta kontzertuekin ondo pasatzeko. Asteburuko Ordiziko kaleetako giroa ia-umeena da eta hortaz, Gaztetxeko kontzertuak ataera biabilegoa dira nere adinekoentzat.

Antton Etxeberria, 25 urte, ordiziarra, hargina.



Josu Benito «Pottolo», 31 urte, tabernaria, ordiziarra.

Bada gaur bertan datozte munizipalak gure soinu aparatua kandatzen, taberna guztietan anklatu behar dituzte. 70-75 dezibeliotara mugatuko digute eta ate bikoitza duten tabernei 90etan utziko diete. Gaueko 10etatik aurrera tabernetako ateak itxi behar. Ertzainak miaketan dabilta baina gure ustez hotsa eta zarata ez da taberna barrutakoa, kanpoko baizik. Hor egin beharko lituzkete ahaleginak, kalean.

Erru guztia tabernarioi atxakatzeko digute udaletxekoek. Parte bat bai, baina dena ez da gurea. Jendearen kaleko portaera da hemen karkoa. Foiloia, baso txikiketa kalean

ematen da, basoak kanpora ematen dituztenak erregistratzen ez zara ibiliko. Horretan ere geu gara kalteak. Ezinezkoa da festetan, udan eta orain ere egiten duen eguraldiarekin tabernetako ateak itxita edukitzea.

Gauzak dauden bezala, ez dut uste arreglurik egongo denik, tabernarien eta Udalaren artean. Soluziorik ez dakit, Udala eta Ertzaintza bera jarri den posturan ikusita...! Ertzainek guztientzat dute zerbait. Konponbideren bat aurkitu beharko da.

Kontxi Sukia, 58 urte, dependienta, ordiziarra

Kasualitatea da, ni bizi naizen lekuan bizita, Sta. Maria kalearen 16.ean, ez dit batere molestutzen kaleko zaratak. Lehenago bai ze kaleko gazte jende guztia atarian bait zebilen, baina langa jarri den ezker ez digu sortzen prolemarik. Buila baino gehiago zikinkeria zen lehenago.

Orain, badaude bizilagunak keja-tzen direnak, eta motigukin keja-tzen direla uste dut. Nik ez dut builak datozten aldetik lo egiten baina badaude alde horretan egiten dutenak eta derrigor keja-tu behar dira. Iruditzen zait gauza hauek neurtu behar direla eta erresponsibleak Udaletxekoak izango direla. Uste dut ordu bat jarri beharko litzatekeela. Ordu bat arte bai, baina gero tabernak itxi. Behin itxi ezker denak aldegitzen dute. Jendea tabernak irikita daudenean dabil. Baina taberna barruko musikak baino gehiago ez ote du molestutzen kanpoko barruiloak? Susmoa dut baietz.

Dena den, ni naiz gutxiena gauza hauetaz aritzeko, ez bait naiz afektatua. Oso ondo lo egiten dut, hotsa izanagatik, sehaska kanta balitz bezala kalekoa. Hori bai, badakit jendea keja-tu izan behar dela eta zeinek betearazi beharko dituen legeak? Ez dakit zeinek, edo ertzainek edo, baina errespetu piska bat sartu behar da. Izan ere, onbre, polita izan behar du gauez ibiltzea, dabile-na gustora dabil baina ez da konturatzeko besteak kaltetzen dituela.





Fermin Etxebarrieta, 26 urte, tabernaria, ordiziarra.

Kaleko ixkanbila, foiloia, ebitaezi-na da: jendearen kultura prolema da. Ez ertzainek, ez udalek ez inork ezin dezakete ezer egin. Gauzak dauden bezala egonda, ez dago zer eginik. Ez dut esan nahi jendea inkultoa denik. Lau tragu jo asteburuan, asteegunean egarri biziaz egonda gero eta ez da pentsatu ere egiten, alkoholak irensten du jendea. Nerone naiz aurrenekoa «errobotatzen» dena. Oso arraroa da ikustea konportamendu sanorik. Hemengo Udalak orain arte hartu dituen neurriak tabernariak estutzea izan da ordea. Komisio batetan izan ginen geu ere eta beraiek aitortzen zuten arazoa «kalean ibiltzen ez jakitetik» zetorrela. Horrek ez du esan nahi kultura edo estudio gehiago/gutxiago edukitzea.

Ordizian ez da kapitalean bezala taberna handi edota ondo instalatutakorik. Musika ekipoei zepoak jartzen ari zaizkie, hotsak berdin segitzen du, kaletik dator. Gasteizen ez bezala, alkohola gazteegiei debekatzeko horretan ez dira sartu Ordizian oraino. Gai horri buruz guraso elkarre eta famili-buruekin hitz egin beharko litzateke gehiago. Berririo lehenagokora goaz, kultur arazoa da goz tartean. Txikiteoa ohitura errota da, ohitura jatorra, arraroena txikiteatzen ez duena da hemen. Hori da hemengo kultura eta hori kenduko duenik ez da jaio.

Gainantzean, dena loturik doala uste dut. Kontutan hartu, ez da ofiziala, baina bai aspaldiko zurrumurrua, tipikoa, Euskadi osoan koartel pare bat dira konfliktiboak direnak. Bietako bat Beasaingo basea. Koartelaren barnean, imajina hadi, ordu konfliktiboak, patruila konfliktiboak, larunbat gauerokoa adibidez. Ertzainak berak datoz paranoiarekin eta bero-beroturik. Txikikerien aurrean, ez noa kasurik kontatzea, beraiek daude alteraturik. Batipat Ordizian baina ez dira txikiagoak izan azkenaldian Beasaingoak. Ertzantza ez da sartzen ari behar bezala. Aurrez prestatuturik datoz eta honela ez dute zereginik.



Migel Calvillo, ordiziarra, Udal-zerbitzueta buru

Egunotan ari gara tabernetan eta pub-etan neurriak hartzen. Hauek irekitzeko baimena eskatzerakoan baldintzak jartzen zaizkie. Segun eta zer sonorizazio daukan bakoitzak muga bat jartzen zaio musikari. Gertatzen da lehendik irekita dauden taberne-eta ez dituztela jarririk. Neurtzen ari garena da lokal horietako dezibelioak eta goiko pisuetako koei joaten zaien hotsa. 90 dezibelio pub-ei eta 75 tabernei. Betiere goiko bizilagunei 30-35 dezibelio baino gehiago joaten ez bazaie, goikoak kontutan hartuta. Bestela beherago jarriko dira topeak. Zarata kaletik datorrela? Hor bi gauza daude. Noski, guk keja asko jaso dugu. Tabernariak nahi dutena esango dute, guk prolemarik ez badugu, ez gara inorekin sartzen. Pub batzuetan ateak itxita edukitzen dituzte eta ez da berdina irekita ala itxita edukitzea. Insonorizazioa eta aide akondizionatu egokia behar da tabernetan, bestela bolumena jeitsi beharko da. Batzuetan estaziotik ere entzuten baita musika. Neurriak Eusko Jaurlaritzak ditu jarrita eta anklaje bat egingo zaie musika aparatuei, teknikoak aurrean ditugula. Behar den bezalako eta batzuk eginik daukaten bezalako insonorizazioarekin ez da ezer gertatzen, kanpotik ez da praktikamente aditzen.

Tabernariak diote hotsaren prolema kanpokoa dela gehienbat. Nola konpondu hori? Oso zaila da. Beste zenbait lekuetan ari dira. Hemen asmatu dugu ordutegia errespetaraztea. Kaleko arazoa zailagoa da, kalean isiltasuna eskatuko dugu. Tabernak itxiz gero, jendea kaleetatik badoa. Gainantzean ez dakit, orain adibidez, Ertzantza alkoholemia kontrolak jartzen hasi da. Jendearen joerak, istiluak eta konportamendu txarrak mozteko neurri batzuk beharrezkoak direla badakigu, baina gu ez gaude ez horren alde ez aurka. Tabernariak diote baita ere, bestalde, jende gehiegi ordiziaratzen dela. Ez al da hobe jende gutxiago ibiltzea hemendik eta gabiltzanok behar bezala? Zenbat jende aldegiten ote du herritik hau transitaezina delako! Ezin da garbiketa erabat egin, egon dadila jendea txin-

Inkesta

txo-txintxo eta gainera musika topean, gazteak edanez, basoak hausten e.a. Neurriak hartu gabe nekeza da kultura aldetik ezer egitea. Gatzetxoei edatea debekatzeko horretan oraindik ez gara sartu, nahiz eta jende batek zirikatu gaituen. Errepresioaren orde, Osasun eta Sanitateko Batzordeen hezkuntza eta prebentzio lanak egitekotan gaude.



Iñaki Intsausti, 29 urte, tabernaria, lazkaotarra.

Guk oraindik behintzat ez zetuagu prolemarik. Lazkaon ez diagu izan halakorik ez festetan ez bestela. Beste norbaitek izango zizkian lehenago baina.

Bestalde, bai nik eta bai gure koa-drilakoak Ordizira joatearen zaleak izan gaituk baina azken bolada honetan Beasaina mogitzen gaituk. Ordizian... ez zekiat gu zahartu gaituk edo atzetik datoztenak oso gazte hasi direlako, jokuz kanpo sentitzen nauk eta nahiago diat Beasain. Lehengo asteburuan izan dituk ixkanbilak Beasainen eta zer esango diat? Ertzainak eurak orden batzuk zeuzkatek eta kunplitu beharra. Edozein tontakeriagatik sartu egiten dituk, horretarako zeudek, soldata justifikatu egin behar. Pasatu egiten direla? Batzutan bai. Hori klasikoa duk. Hi kalean habil, pasatzen duk parejea, begiratzen haute eta hik haiei ere. Zer edo zer esan? Bada bai, nik, segurasko, behin edo behin esango nien, ez mala-letxean baino.

Orain ateratzen ari diren lege berri hoiek Bitorin-eta, 18 urtez behekoak tabernetara sartzea galazturik daukatela ondo iruditzen zaizkiak. 18 urte baino gutxiago duten muki-zaak balantxan ikustea? Hori ez duk tabernarien kulp, tabernariak jeneroa saltzeko zaukak. Oso korapilotsua duk guzti hau. Gure estankora etorri edozein mutiko enkargua betez, eskatu tabakoa eta ez egiok eman! Atzetik bere aita etorriko zaik eta jaleoa monta zezakek.



Iñaki Hidalgo, 30 urte, ordiziarra, Kultur-Etxearen arduraduna.

Araudiak hor zeuden lehendik ere, bete gabe baina. Asteburuetan, Ordizian behinepein, jende gehiegi biltzen da agian eta nahiz eta gizarte hau oso indibidualista izan, bada, zer gertatzen da hor? Indibiduoa masa bihurtzen da eta masa horren anparoan, berak bakarka egingo ez lituzkeen gauzak egiteko babesa duela, alkoholaren errefuertzarekin-edo.

Azken batean ez dakit zer izan litekeen: hezkuntza falta, erreferentzia falta edo baloreen falta. Pentsatzen dut hor ikerketak egongo direla, baina zerekin lotu, zergatik hori? Gaztedi Batzordean ikusi da, eritzi batzu agertu dira. Esaten zen poteoa betidanik eman dela, baina lehena poteoa aitzaki bat bezala hartzen zen bizitza sozialarako. Bienbitartean, gaur egun pentsatzen dut, poteatu, poteatzeagatik poteatzen dela.

Irtenbiderik? Ez dakit. Momentuz ez da ikusten. Agian oso pasiboak garelako, denbora librean daukagunean ez dakigu zer egin. Hortik etorriko da hezkuntza, falta. Agian, aisia betetzeko alternatiba asko ez dago hemen. Baina bada kirol ingurualde bat. Horra hor. Behar baino gutxiago erabiltzen da, behar bada. Dantzaldiak jarri? Neri, partikularki, tabernak betetzen dituzten gazte txoak adina kezkatzen naute kaleotatik bueltaka dabiltzan gaxteagoak, ondoren datoztenak. Zer ikusi hura ikasiko dute.

Tabernekin dauden arazoez, normatiba bat badagoela pentsatzen dut eta arau horiek bete egin behar ko dira.



«Mitxel», 21 urte, ordiziarra, tabernako-mutila, e.a.

Tontakeria bat iruditzen zaizkit edatea debekatzeko neurriak, gazte-
diak beste bide batzu bilatuko bait ditu edaria aurkitzeko. Uste dut erremedioa gaisotasuna baina txarragoa izango dela. Beste zenbait alternatiba planteatu beharko lirateke. Posible ez dena da zu taberna batean zaudela pote bat hartuz eta ertzaina bat etortzen zaizu karne-ta-eske, Gasteizen bezala. Kaxkareria besterik ez dakite egiten. Zaraten hotsa kalean dago, barrakoak ez du kanpokoaren errurik, ezin hasiko gara kanpoko jendea kontrolatzen. Hertzaina sesio bila dabil eta azken-
nerako aurkitzen du. Larunbat goizaldero alkoholemia kontrol morda jartzen ari dira Beasain eta Zumarraga bidean. Jarri ditzatela ezkontza, bataio eta enpresa-gizonen «lan-bazkari»ren ataeretan! Dena ondo egitearen alde nago, baina ondo. Kontrolak denontzat, aber!



Pedro Jose Zabaleta, 31 urte, beasaindarra, tabernaria.

Ez dut informazio handirik. Gauza gehienak Ordizian gertatzen ari dira eta nik aditzez besterik ez dakit zertan dauden. Beasaingook, oraingoz behinepein, ez dugu prolemarik. Taberna lokalizaturen batek eduki-
ko ditu prolemak, baldin baditu.

Jeneralizatu diren neurriak, hau da, gazteei edaririk ez ematekoa, neri ez didate esan beharrik, zero-
rrek ikusi behar duzu zeini eman ala ez. Hobe gaztetxoak sartuko ez balira! Nerone naiz lehen interesatua. Baina soluzioa ez da «karneta ahoan» esijitzea, alternatibak jarri behar dira eta gazteek ez dute beste alternatibarik, edatea ez bada. Ez dut esan nahi Gaztetxeak direnik alternatiba. Horrek prolemak sortzen ditu; gazte bat frustraturik badago, zerbaitekin ebaditu behar du eta edaria ez bada, gauza peligrrosoagoren batekin ebadituko da. Alkohola baino gauza arriskutsuagorik bada. Urrutira joan gabe, horko aurreko plazan heroina majo manejatzen da, trafiko galanta izaten da.



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Zer nahi hura:

PINTXOTAN: denetik

OGITARTEKOAK

BAZKARI eta

AFARIAK



880035

Mari Karmen Garmendia eta Joseba Intxausti goierriarrek ireki zuten «Euskal Hitz» erakusketaren 51. edizioa Ordiziako Barrenako Kultur etxean.

Joseba Intxausti segurarra aurrean dabil Eusko Gobernu-rako euskararen inguruko ikerketak eginez. Donostian bizi arren bere jaioterrira maiz etor-tzen da. Arantzazura 47.ean praile-tara joan zenez geroztik hizkuntza mailan asko galdu bide du Goierrik bere ustetan. Orduko egoera beste-lakoa zen, «Gure garaian ez dut uste Seguran euskaraz ez zekie-nik ba ote zen ere. Eta hori gutxi gora-behera orduko bizilagunak izango dizkiala Segurak. Kanpo-tarrak etorri dituk geroztik. Bai-na orduan zetozenak, lehen-txeago edo geroxeago, euskaraz moldatzeko modura jartzen hi-tuen. Orain, berriz, ez duk beste hainbeste gertatzen. Beraz, bene-tako bitasun bat zegok herrian. Hala ere nik esango niake, nire umetako inpresioa duk, bada, beharbada, zenbait gauzetarako Beasaingo euskaldunek gaurre-gun eduki dezaketen indarra ez zutela. Bultzada gehiagokin da-goela euskaldungoa». Oso kanpo-tik-eta begiratura, inpresioa.

Gainantzean, kulturaz eta hez-kuntzaz duen ikusmoldea erakutsi zigun. «Esango nuke Goierri-n, Euskal Herri osoaren antzera, eta herri txikietan areago, gure garaian inork ez zuela egiten ba-txilergoa. Goiko ziklotik apenas pasatzen zen. Hor bagenian jen-de ez-eskolatua eta eskolatzeko es-kasaren ondorio bat, orain ere somatzen dena, hainbat jende-k ez dik karrera bat egiterik izan; beren seme-alabek, egin egiten diate. Geroztik etorri duk, ni he-mendik irten eta dextente ondore-neko urteetan, ikastolen fenome-nu hau. Guk ez genian eskolarik euskaraz izan. Nik gogoan diat 45-46-47 urteetan izan geniala maisu euskaldun bat nacionale-tan. Eta hori nobedade izugarria izan huen. Geroztikakoek beste aukera batzu izan dizkiate eta al-de horretatik, nik uste diat gaur-ko gaztediak, nahi badu, hurbil-tasun handiagoa duela euskal kulturarekiko».

— Hizkuntzaren Perfilak eta Ma-pa Soziolinguistikoa ez omen dira argiegi eman edota gehiegi zabaldu.



— Horren berri «Euskal Hitz»ek aterako duen liburuan agertuko da, baita mapa ere. Zabal-kundea ez dakit zenbateraino eman zaion; aurkezpen publiko bat egin zen e.a. Eskualdekatze bat da Komunitate Autonomoari begira, eta hor daukazu, bada, puntu bat behintzat da E.H.-an ez dagoela euskaldunik gabeko es-kualderik. Ez da asko esatea bai-na zerbait bada. Bigarrena da zenbait eskualde benetan indar handian daudela euskaltzaleen aldetik, batez ere Urola eskual-dea eta Lea-Artibai aldea. Goierri 2. mailan eta portzentaietan da-goela uste dut. Mapa ikusi behar-ko litzateke eskualdez-eskualde, errolda subjektibo horren arabera Komunitatea nola gelditzen zai-gun ikusteko. Bere mugak ditu, noski, errolda horrek. Ikerketa asko gelditzen dira egiteko, hale-re. Datu nahiko beltza: azkenean, Euskal Herrian euskara dakite-nak % 25-era ez garela iristen. Hori lehendik ere bagenekien, terminu orokorretan bazen ere. Nolanahi ere, euskaldungo nahi-ko ederra badago bizirik. 650.000 baldin bagara, bada zer-bait. Bakarrik, esan, gizarte oso erdaldundu batean gaudela eta hor mekanismoak ez dutela fun-tzionatzen eskualde edo hiri ba-tetan bakarrik bageundeke beza-la. Sakabanaturik ez baino bildu-rik bageunde errazago egingo genuke euskaraz elkarrekin. «Ghetto» bat ere ez dugu egin na-hi, Euskal Herria euskaldundu baizik eta bide bat egin beharko da jende guztiaren, baita erdal-dunen, borondatearekin konta-tuz.



Mari Karmen Garmendia or-maiztegiarrek Eusko Jaurla-ritzaren Hizkuntz Politikara-ko Idazkariaren kargua du eta Ordizian «Euskal Hotz» aurkezte-ko eguna egun haundia zela aitortu zigun. «Ikasle garaian ez zen insti-tuturik eta Academia Urdane-ta"n egin genuen batxilerra. Han genbiltzanean «Zabale»neko okindegian otxoak erosi eta hura janez Barrena Jauregi honi begi-ratzen genion oso urrutiko zer-bait bezala. Gaytan de Ayala-edo familia handizki horren esku ze-goien. 64.a-edo zen eta ez genuen amets ere egiten hau eskuratu zi-tekeenik».

Ordizian ikasketak egin eta J.In-txausti baino askoz beranduago ir-tengo zen Goierritik. Urte askotan irakasle gisan aritu, alfabetatze lane-tan Rikardo Arregi edota Joxe Mari Aranburu lazkaotarrarekin ere, adi-bidez; «Zeruko Argia»n «Gazte naiz» sail famatu hartan idatzi 64-65 urtee-tan eta hortik aurrera hasita ikasto-letan eta Sto. Tomas Lizeoan; «Erein»en testugintzan eta handik Magisteritza Eskolara pasako zen, hortik Jaurlaritzara joan zelarik. Tartean Strassburgon eginiko dokto-radutza.

Goierriko iraganaz eta orainaz galdetu genion eta gizarte osoa aldatu den bezala gure bailada ere aldatu dela dakusa. «Baina nik esango nuke, esate baterako, kulturari eta irakaskuntzari begira jarriko bagina, hor eman dela aldaketa handiena, onerako izan delarik gainera. Kultur Etxe hau da horren adierazgarri. Orduan ez genituen baliabide asko gaur egun eskuratu ditugu. Niretzako kezka, badakizu zer den? (euskararen aldetik beste hainbeste esango nuke): gaur dauzkagun baliabide horiek behar bezala erabili eta atera dezaiekegun zuku gutia ateratzen asmatuko ote dugun. Bitartekoak badauzkagu eta horiek agortzeraino saiatu behar gara. Bestela, orduko haietakoa-ekin konparatu eta, dudarik ez, ikaragarritzko aldea dago. Ejenplu txiki bat jarriko dizut, inoiz esan dudana. Irakurtzeko, esaterako, garai hartako Goierri, zer geneukan testu mailan gure etxean? «Xabierto» gasta-gasta egin arte irakurriko zen eta Orixeren Meza-liburua buruz ikasi genuen. Hortik aurrera Lazkao-ko fraileen inguruan libururen bat erosi eta irakurtzen genituen, baina gauza mugatua zegoen. Familian jaso genezakeena —familia euskaltzale eta abertzale batetako umeak gara gu—, zortea izan genuen, ez gehiegi ordea».

— Euskal egunkariaren inguruan zerbait berririk?

—Egunkariari buruzko eritzia eman du Euskararen Aholku Batzordeak, ni naiz horko Idazkari Nagusi, ezta?. Orduan, gure us-tez, egunkaria bai, baina izan da-dila aurrera egingo duen zerbait. Galdu ordez irakurleak irabaziko dituen. Geroz eta gustorago hartuko duguna. Beraz, izan da-dila benetan aurrera egingo duen proiektu bat eta horretarako behar diren plangintzak eta baldintzak jarrita.



prozesioa barrutik?
hoa hortik!



PUBLIZITATE ESKAINTZA

1.000 Aletako tirada izango du GOIERRITARRAK hasiera bate-tan; Goierri osoan, komertzio, taberna, kiosko eta harpidedunen bi-dez banatu beharrekoak. PUBLIZITATE TARIFAK honako hauek izango dira:

BARNE ORRIALDEA

Orrialde osoa 30.000 pzta.
Orrialde erdia 15.000 pzta.
Hamarreko moduloa 3.000 pzta.

Harremanetarako, gure POSTA KUTXA Ordiziako 124.a da; diru sarrerak GK-ren Ordiziako sukurtsala, KONTU KORRENTEA-REN zenbakia: 01 1.427.276-8. 889612 tfna.



LARRUTIK PAGATZEN DITUGUN

Ordu estrak

Langile mogimenduaren historian konstante bat izan da lanorduen kopurua gutxitzea. Bat etorri izan da langileen bizimodu baldintzen hobetze eta progresoarekin. Borroka franko egin zen bere garaian 8 ordutako laneguna kontsegitzearen. Egun utopiatzat kontsidera daiteke oraindik 35 ordutara mugatzea asteko lanorduak, mundu guztiak beharrezko eta bidezkoatzat ikusi arren.

Inondik inora estremistatzat hartua ezin izan daitekeen La Fontaine teoriko sozialdemokrata alemaniarrek, zenbait sektoretan hain puri-purian dagoena bestalde, 32 ordutako helburua aipatzen zuen duela gutxi. Eta bitartean gure inguru hurbilenean? Badirudi gure gizartearen voragine-ak alderdi honetan ez duela korrektoreen behar zipitzienezako ere txokorik uzten. Gainera, antza denez, industriak gero eta jende gutxiago okupatzen du, zerbitzuen areagotzea eman delarik; «bakoitzak ahal duen bezala montatzen» omen du, tokatzen zaizunarekin dantzatu behar.

Datu batzu errealtate baterako

Kontestua azter dezagun lehenbait lehen: alboko taulan ageri dira Goierriko zenbait lantegitan sartzen diren ordu estren kopurua. Azaltzen direnak diren arren ez dira azaltzen diren guztiak, enpresa dexente falta dira. Honek esan nahi du ordu estren zenbatekoa nabarmen disparetuko dela. Kontsultaturiko iturri sindikalen arabera orain baino ordu gehiago egin izan dira eta beharbada enpresa handietan eta metalgintzan batipat. Aristrain enpresak berak denbora librea eskaintzen omen du eta CAFen ere nahikoa kontrolatuta omen dago. Enpresa handietan sindikatuen aldetik nolabaiteko kontrola ezartzea lortu bada, askoz ere zailagoa izan zaigu kooperatiba eta erdi mailako edo enpresa txikietako datuak zehaztea, jakin arren bertan lanean dabilen jendearen ahotik, gogotik sartzen direla; tailer txikietan ordu-sartze asko ematen da, moeta



honetako enpresak eta kooperatibek beren langileen artean sortu nahi dituzten baldintza «familiar» eta «domestiko» ei esker hobeto izkutatuta eta irensten dena, «Denok bait goaz barku berean eta guztioi interesatzne bait zaigu». Ikuspegi enpresari ttipi batetik esango da konpetentzi erronkaren aurrean nola edo hala, orduak, sartuz, jaiegunetan lan eginez eta gero lanegunetan jai hartuz, produktuaren kostua merketu egiten dutela, langileen irabazien bizkarrera bai, baina «hitzarmen Tá-cito» batetan denok irabazten atereaz enpresaren biziraupena mantentzeko merkatuan egokitzearen ondorioz.

Ezin uka egoera eta datuok beldurgarriak direla beste datuokin alderatuz gero: azkeneko 5-6 urteotan CAF-ek 500-600 langile galdu ditu gaur egun 100 ebentual dituelarik. Aristrainek 200 langileren bat galdu omen ditu eta Indarrek beste 100 bat. Enpresa txiki asko desagertu dira, azken 2 urteotan berpizte bat ezagutu bada ere.

Sobran eta faltan dagoena Goierrin

Bitartean Ordiziako INEM-eko bulegotan 2672 lagun zeuden apuntatuta lan eske iazko azaroan, eta be-launaldi berriek gero eta gordinago dute lana aurkitzeko tenorean. Honi gehitzen badiogu emakumezkoen zailtasunak emakume izateagatik lan bati heltzeko, ostalaritzako fenomeno nabarmena den lan beltza eta murgildua e.a...

Esan daiteke ordu estren fenomeno honek hareman zuzena duela langabeziaren arazoarekin: ditxozko errekonbertsioa dela-eta, industri mailan lanpostuak gutxitzen ari dira aurrerapen teknologikoaren kausaz; bestetik, enpresen aktiboa mogitu egin da produkzio eta esportazioen gorakadaz. Honen aurrean enpresariak bi motatako jarrerok hartzen dituzte: langile bat hartu ebentual gisa edo enpresa bertako langileak ordu gehiagotan jarri lanean, azken honi helduz gehienbat. Ordu estrak kentzeko posibilitate

bakarra enpresen esku omen dago. Orain 5-6 urtetako legediaren arabera ordu estren kalkulua orduko milapiko pezetatan jartzen zenean, enpresariak ikusirik oso garesti ateratzen zitzaizela kendu egin zituzten beste ordezkio batzu bilatuz: subkontratazioak, jendea hartu... enpresariari merkeago ateratzen zaio 1990.ean, ordea, ordu estrak eskaintzea jende berria kontratatzea baino. Honez gain, askotan ebentualari berari orduak sartu eratzen zaizkio despatxatzearen mehatxupean. Non geratzen da hain aipatua izan den enpresari batzuren funtzio eta sentibiltate sozial hori?

Enpresa asko eta asko errekonbertsioak egiten ari dira, langileen %25 gutxigorekin, produkzioa, aldiz, jeitsi gabe eta ez enplegurik ez ezer sortu gabe; lan-karga handia dagoenean ordu estrak gainezka sartzen dira eta kitto!, horrela ez dago konpromezurik ez kontratu ez antzekorako.

Ordu estren bidez jende gehiago kontratatzea galarazten da. Errealitate honen zeharkako ondorio bat ugazaben edo nagusienganako menpekotasuna handitzean eta indibidualismo indibidual eta sektorialean datza.

Sindikalaritza iturrietatik adierazten zaigu elementu distorsionatzaile diren aldetik ordu estrak langileen artean zatiketarik eragiteko erabiltzen direla maiz, batzuri eman, besteri ez, enpresariaren joku eta interesen arabera. Honi ez zaio arrotz, diotenez, langile industrialek jasan duten aldaketa: bete betean sartu dira kontsumismoaren sareetan, enpresak ordu estrak planteiatzen dituen langileak gogo onez hartzen ditu... deseatzaren egoten dela, hain zuzen. Kotxe pagatu beharra, pisuaren plazoak... Inori ez dio kalte egiten sobreak propinatzea (soldata adina, erdia...) aurkitzeak... Ezin da ahaztu Legearen arabera ordu estrak boluntarioak direla.

Sindikalaritza ordezkari batek azaldu digunez kontsumoan sustraituriko gizarte honek hestutu egiten du eta soldatek hain bajuak izaten jarraitzen duten neurrian kolektibo sozialak derrigortuta ikusiko du bere burua dituen beharrianak gauza guztien gainetik asebetetzera, aurkitzen den gizartearen kontestu eta ezagairien arabera, sindikatuak kontrako kontsignak zabaldu arren.

Sindikatuak

Sindikatuak (ELA, LAB, CCOO) nabardura gora nabardura behera, funtsean ados daude ordu estrak errotik eliminatzearen filosofiarekin. Baina hori teoriarik gertatzen bada ere praktikan bakoitza bere kientelari zor zaio, imajinaezinezko malabarismoak ematen direlarik. Indar gehiago du orduak sartzera eramaten dituen afiliatuen inertzi inkontzienteak sindikatuaren beraren erizpide landuak baino.

Goierriko Ordezkaritza Sindikalaren datuei errebasu bat emanez gero ELAk delegatuen %50etik gora omen dauka, LABek %25 bat, eta CCOOk %20 ingurua. Kontutan hartu beharrekoa baita ere langile asko ez dagoela afiliatuta gure arteko tradizio eskaxa dela-eta, baina hala ere sindikatuen indar morala ez da oso leku onean geratzen.

Sindikatuetatik bertatik esan zaigu gai honetan eragin askoz ere zuzenagoa izango luketela langabetuek beraiek antolatu eta beren plataformetatik presioa eginez gero. Gure inguruetatik aspalditxo joan ziren pikutara nahikoa larri irauten


zuten herrikako Langabeen Asanbladak (Beasain, Ordizia).

«Langile» hitzak galdu omen du bere haserako esannahia, sujetu iraultzaile izateaz utzi du langileak diotenez, ezin interes berberak eduki lanpostu baten jabe denak eta ez denak edo epe motz baterako soilik duenak. Sindikatuak konbenioetatik nahi dute bultzatu egoeraren aldaketa aurretiako kontzientziatze kanpaina batetan jarritik enfasia; hala eta guztiz, egoerak alde egiten die eta gainezka egiten die, kontrolaezin bihurtzen zaielarik inpotentziaren inpotentziak.

Administrazioa

Administrazioaren sibilinismo eta pasibitatearen arrazoia makroekonomiari eta orohar ia baldintzarik gabeko produkzioaren gehitzeari eta merkantzien zirkulazioari ematen zaion garrantzi nagusien lerrotan kokatu beharra izango genuke.

Legislazioaren arabera gehienara urteko 100 ordu estra sar daitezke. Egungo joeren eta interpretazioen arabera (Magistratura, Inspektzioak, e.a...) 100 ordu horiek edozein momentutan sar daitezke, hilabete batetan kasu. Bestalde, plantilako baita ere ordurik sartzen ez duenaren orduak sartzeko aukera banagarritzat hartuko da, hau da, plantilako partaideko batz bestekotik 100 bitartekora faltatzen dena onartu egingo da, eta batek 100 ordu sartzen baldin baditu eta besteak, berriaz, 0, lehenengoak aukera izango du 200 ordu sartu ahal izateko.



Enpresa	Langile fijoak 1989	Langile ebentualak	Ordu estrak 1989	Ordu guztietatik estren%
CAF	1.460	90	16.000	0,59%
INDAR	360	10	14.346	2,18%
ARISTRAIN	750	-	25.000	1,93%
ESTANDA	255	3	3.155	0,68%
GUERRA HNOS.	98	30	22.000	9,60%
AZPEITIA HNOS.	60	13	15.000	11,4%
SUMINISTROS LOINAZ	27	7	10.000	16%
JASO ISASONDO	99	30	60.000	26%
(gutxi-gora-beherakoak)				

Araututakoa ere betetzen ez bada ezin da ahaztu oraindik gauza arko daudela erabaki gabe edo erdi erabakita, edozein gehiegikeria edo «pikareska»ri atea zabalik uzten diotena, adibidez ordu estrukturala— ez estrukturalen arteko banaketa, bajetan eta indar handiago delako arrazoietan oinarritutakoa.

Administrazioak ez du inongo borondaterik erakusten ordu estren gai honen inguruan ematen diren demasietan eskua sartzeko «laissez faire, laissez passer» politika jarraitzen duelarik.

Bi bitxikeria: «Gerra Anaiak» eta «Jaso»

Ordu estrak sortzen dituzten kontrazioak begibistan jarri eta ahozabalik uzteko modukoak direla frogatzeko Goierri mailako bi kasu «berezi»ren berri emango dizuegu. Taulari begiratu baino ez dago ordu es-

trak sartzen dituztenen arteko «hit parade»an «Jaso»k urrezko domina eskuratzen duela eta diferentzia handiz, konturatzeko.

«Jaso»n eguberritako oporretan plantilaren %98a aritu omen da lanean, ordu estra bezala kobratzen bakazioak, noski! Kalendario bat egiten dute, opor gehiago kontsegitzeko borrokatzen aritzen dira, eta gero hau!

Dena dela beste datu batek harrituko gaitu: «Jaso»ko Enpresa Komitean 9 partaideetatik 7 LABekoak dira. Sindikatu abertzalearen esplikazioen arabera hauteskundealdietan politikoki hurbil zegoen zenbait jendekin kontaktatu zen kandidatura bat osatzearren, beste inork ez zuelarik kandidaturarik aukeztu.

Sindikatu abertzalearen bozemaileak aitortzen digu lotsagarria dela baina era berberan imposible dela ezer egitea, berehaldiko egarria dagoela orduak sartzeko. «Gerra Anaiak»-en «berezitasuna»a beste le-

ku batetik dihoakigu: sartzen ziren ordu pilaren aurrean LABeko delegatuek denuntzi bat sartu, zuten orain dela 3 urte (?) Magistraturan. Aurretik komite mailan istilu nahikoa latzak izan omen ziren ordu estrak onartu ez onartu ELA (3 lagun) eta LAB (2 lagun) artean. Administrazioaren sententziaz Gerra anaiak 15 kilo pagatu behar izan zituen multa modura. —Bost axola, orduak sartuta lortzen zuen fakturazioa zifra hori errez gailentzen omen zuen eta—.



Hurrengo urtean mobidak berdin jarraitzen zuen berriro denuntzia sartu zitzaielarik LABen aldetik. Oraingo honetan, ordea, alper alperrik. Inspektorea etorri eta ez zion inportantziarik eman, enpresariak lana sortzen dutela aitzakipean ikerketen hondora jo gabe eta kobertura emanez ordu estrak hain exageratuki sartzen jarraitzeari.



Oriau Kolektiboa



Ordu estrak



Tere Irastortza: «Euskara kriminalizatu nahiean dabilta... euskaldun batzu»

Irakurlearentzat ez ezik geurontzat ere interesgarria zatekelakoan, behartu egin behar izan dugu Tere Irastortza, beasaindartzutako zaldibitar idazlea literatur mahai-inguruetan ohizko izana, elkarriketara etor zedin. Duen adina eta sentitzen duena aitortu eta adierazteko txorakeria gutxi, hitzaren balioaren jakitun, erakundeekiko mesfidati, zer ez dugu erreparatu, xano asko? Bere eritziak dituzu hemendik aurrerakoak, urrun moralismotik haren asmoak.



Gazte-gaztetatik nabari zitzaien. Neskatoak, behar bada, fantasiosagoak izaki, eta direna direlako halako joera gehiago dute. Zerbait zirriboratu zuen eskola txikian, institutuan ere bai eta, serio antzean «Gabeziak» idatzi zueneko. Liburu hark (Premio Nacional de la Crítica medio) sortutako autore berari buruzko eritzi publikoa

eta beste zenbait gauza estraliterarioengatik, sexu-kondizioengatik, sakon aldatu zuen bere idazteko modua.

Edonola ere, atrebitu zen idaztera ikasketetan aurrera egin zuen ahala, eta egindakoaz ez bada lotsatzen ere, bai zertxobait ausardia hartaz. Filologia bukatzeaz, Gasteizen «Kandela» taldea osatu zuen. Denak omen ziren ezjakintasun maila berdintsukoak eta literatur eztabaidak azkenerako zerbait utzi zion. Segidan Bergara UNED-en hasi zen lanean zaldibitarra, beste bide bakarkaxeagokoa, gaur ere hizkuntzaren inguruko irakasle dabilelarik eta «Hostoak», «Gai eta Gau aldaketak», «Derrotaren fabulak», eta «Osin-Berdeko Kantohoriak» poesian eta makina bat entsaio (emakumea epizentru) eman dituelarik.

Eman diezaiogun hitza idazleari. Balio du. Uste dut bada poesiak tokirik ez badu geroz eta gehiago, erreflesioak gure gizartean orduan eta leku gutxiago duelako dela; ez, berez huts egiten duelako, gizarteak beste bide batzu darabatzalako baino. Pentsaraztea behin eta berriz irakurtzea eta denbora galtzetzat jotzen delako. Konbertsa-gai gehienak nondik doazten erreparatuta, zer esanik ez.



Utopiak ahaztu gabe, errealtatean errealista izanez

Grabagailua aurrean dugularik, altuago hitzegiten duelakoaz konturaturik dago gure mintzaidea, klase emango bailuen, dio. Nire galdera da, ea poesia egitean ere hala ez al den, ahots aldaketa, bitartekoak badira, mintzoa lantzen da. «Poesia artifi-zioa da. Baina hain modan dauden kirol errege eta nagusietan ere berbera gertatzen da. Inork ez ditu, berez, halako errekorrak gainditzeko, denbora askoren buruan aritu eta gero bai-zi-k. Literaturan ere ez da berezotasuna bakarrik». Badaude modu batzuk, tresna haiez baliatzeko, entrenatu egin behar da. «Profesionaltasunak badu onik. Baita espontaneotasunak. Dena da beharrezko. Landutako lanak egitea ondo da, gauzak berriz pentsatu eta moldatzeko aukera eman behar da. Idatzitako guztia literatura balitz bezala agertarazi behar denik ez dut uste. Lagun batek dio, beharbada, debekatu

egin beharko litzaiekeela zenbait gazteei hola eta hala publikatzea».

Lana neurtzearen aldekoa da Tere.

«Uste dut lana, onena ere, beti dela gutxi egin beharrekoa, lana bizitzeko den neurrian eta, beste zerbait egiteko guraria baduzu, hartara jjo; bakoitzak ikusi behar du; nik behinepein, bizitzeko hain egitearekin nahikoa dut eta idazteko lanor- du gehiago eskuratzea dut helburu. Izan ere, gaurregun jende asko da erabat super-arduraturik beren profesionaltasunarekin. Errealizaturik sentitzea eta badi- rudi gureak ez diren arazoak (lante- giaren egoera-eta, ez dakit zer badakit non, asimilatzen ari garela, makinizatu- rik bizi garelarik. Uste dut aldarrikatze- ko modukoa dela, lana bizitzeko dela eta ez alderantziz. Batz best 10 ordu egiten dira lan hemen. Zertan datza aurrerapena?»

—Zure traiektoria pertsonala azken euskal literaturaren antzekoa izan liteke. 80.-en hasieratan batxetik despegatzen zen, produkzio kopuru aldetik bederen. Batere tradizioz egin da, aberastu gara 90.etarako?

— Ez nago gehiegi esateko; gainera, poesiaren gainekotaz izan gara hizlari. Beno, batzuetan beste, poesia egiteak gutxitzen jo du, narrazioa gailendu delarik. Batipat ipui/nobela-gintza, azkenekotik gutxi oraindik. Edozein modutara uste dut literatura akomodazio bat egiten dela: ez naiz ari literatura sozialaz/indibidualaz... Egiten den literatura askoz amoldatuagoa dela tradizioari eta kanpoko errealitateari. Uste dut geroari begira, kaltegarria dela. Nola-bait, literatura eta guztiau ari dira suertatzen beste zerbaitetarako bide. Nire eritziz, ondo egongo da maila guztietako periodikuetako literatur orrien ugaltzea, baina, ez al da esajeratu samarra? baldin eta esaten bada esaten denak ez baino formak daukala garrantzia. (!)

Esan liteke, ez erabat, baina konformatu egiten dela literatura, moldatu bada, dagoenetik elikatzeke. Orohar, gizartearen, utopia eta amets handiegirik ez dagoen bezala, ez eta literaturan ere. Geroa nekoso da, atzetik ekarriko duela ez oso gauza onik, nire eritzirako. Hainbeste eta horrenbeste liburu produzituko da, baina zein liburuk sortu du bada garai batean «Leturiaren egunkari izkutuak» edota «Ehun Metro»k sortu zuen eragina?

— «Obabakoak»-ek?

— Bai; beste modu batera. Baietz uste dut, gizarte mailan. *Izan da festa bat, euskal idazle bati sari espainol bat eman diotelako. Badirudi horrekin azpimarratu dutela ez gaudela hain atzeraturik. Ez diot batere meriturik kentzen Bernardori, ezer-txo ere ez.*

— Eta beste lehiaketa/subentzioen loteri/fabula...?

— Esango dizut partikulari. Hain bizi nitzen hortik kanpo, aurkeztu nintzenean ez nekiela zeintzu ziren epaitzen nindutenak naiz eta izenez «ezagutu». Hori norberaren kontua da: zertara aurkeztu gara, irabazte- ra ala onespén moral bat jasotzera? Uste dut subentzionatutako herria dela hau eta ez dago eskaporik hor- tik. Denok gaude subentzionatuta: irakaskuntza, telebista... ez da be- rezko ekimena.

— Nora goaz? Gaurregungoa atzerago hasi zenez begira de- zagu atzera: «trantsizioak postmo- dernismoa ekarri zigu»...

— Nire ustez bi protesta mota daude beti: ez dena eta izan nahi duenarena bata; ez delako protesta- tzen duena, bestea. Franco-ren ga- raian-eta, jende askok protestatzen zuen ez zeukan boterea nahi zuela- ko. Botere hori lortu dutenean orain, botere hori defenditzen dute. Beste batzuk aldarrikatzen zuten po- tererik eza, edo behintzat, botere minimoa. Hauen asmoa ez zen bote- re politiko/ekonomiko/norma- la/kritikoa, baizik eta, nolabait, as- katasun gutxiengoa. Momentu hone- tan, ezkutuan ziren bi mota horiek agerian jarri dira. Lehen bazirudien denak konforme geundela zerbaiten kontra. Kontua da zergatik geunden kontra.

Ez polizia espainiarrak enbarazo egiten zigulako, baizik eta euskaldu- nak polizian sartzeko aukera han- diegirik ez zutelako, eman dezagun, eta ireki denean «ve da» berehala sartu gara. Francoren administra- zioan ez zen euskaldun gehiegirik, aski izan da Jaurilaritza jartzea dena betetzeko. Gaur jende asko bizi da (ez noa esaka aritzera, besteak bai ez gu) bizi gara sistimak ematen duenarekin. Ezin gara aurka egon.

Posibilismoak menderatu gaitu eta, orduan, azken finean, nire uste- tan, ez da hainbeste aldatu gauzen egoera, ez gara engainatu behar. Al- datu da, agian, «geure iritzien alde» hitza ateratzen zutenen hizkuntza, horrek ekarri duen adierazpide eta pentsamendu askatasuna jakin baten murriztea. Gauza asko kome- ni da ahaztea, argi dago. Zorionez, beren akats eta guzti, Euskal He-

rrian alor batzuetan kritiko izaten jarrai- tzen dute, kritikotasun maila bat ba- da. Hori bai «memoria eza» eta adie- razpen askatasunari jarritako erre- korteak ugari dira: derrepente bere- halako neura dauka jende batek pa- retak txukun egon ditzaten. Baina horietatik inor ez da sartzen beste zentzugabeko basakeriak (kutsadura hemen, e.a.) salatzen. Arazoa da pentsamendu eta adierazpen klase baten aurka daudela gauzak: era- kundeen aurkako jendeak ez du gi- zartearen me- dioetan parte hartze- ko aukerarik (HBk ez du telebistako mahai-inguruetan Le- kurik) zabalkun- deko periodikuetan, hori faszismo hutsa da! Eta hori bezala mila gau- za. «Emakunde» depronto sortu goi- tik eta emakume arazotan aritu dire- nak orain arte ez dute ezer pinta- tzen...

— Negoziazioaren aldeko zaitu- gu, ezta?

— Nik esan izan dut, dakidala, ne- goziazioa irabazteko planteatu behar dela. Oso dondo, baldin eta irabazteko kondizioetan bageaude. Bestela errendizioa deritzaio horri. Orain, zer esango dizut? Hortaz hitz egiteko kaletik jasotzen dugun bai- no informazio askoz gehiago eta za- balago behar da. Informazio hori oso mendiatizaturik dago. Gauza guztietan bezala, noski, zu fidatzen zara, normalean, okerrera pasatzen duenaz/rekin. Ni behintzat bai, ba- daezpada ere.

— Autodeterminazioa dabil denon ahotan.



Emakumeen egoera aldatzeko egin beharko da iraulketa edo amiltze bat

— Lotsagabea da orain dela 10/15 urte denok ados gentozenean, orain ikustea nola hitza jan duten batzu-batzuk. Oso negargarria de Iparraldeari buruz geroz eta gutxiago arduratzen garela konstatatzea, eskubikoena ikusia zegoen, baina ezkerrekoena! Hain gauza erreala utopikoa izatea ere! Tamalgarria Nafarroako auzian egon diren «ahazturak» eta gorreriak. Nere ustez, hori dakarki gizarte mogimenduari erakundetara eraman nahi izateak: erakundeok ez dute biltzen sekula gizartean ematen direnak. Hain zuzen Konstituzioari, OTANi-eta ezetza eman zitzairen. Ez alferrik!, ez da ezer pasa.

— Segi, segi.

— Klaro, hemen erregearen aurka-edo ahotsa altxatzen duena kartzeleratzen da, baina demagun koa-drila batek 800.000 lanpostu sotuko dituela agindu eta ez duela betetzen. Hark ez du gezurrik esan, ez inor engainatu.

— Gatozen gertuagokoetara: euskaltasuna/abertzaletasuna, konplementario izan ordez kontrajarriak leudeke? Hitz potolo asko dantzatzen da, ezer eraikitzeko, berriz, bitartekorik ez jarri.

— Badago dirua gauza batzuetarako, ez Iparraldeko ikastoletarako. Nahiz eta Euskadin egon askok ez dute aukerarik euskara ikasteko. Beste gauza guztiak bezala, hizkuntza sentimentalismoaren esparruan sartzen da: maite duzu ala ez duzu maite. Nik ez dut sinesten ezagutzen ez duenak maite dezakeenik. Ez dut sinesten partidu gehienek, ematen dioten tratu txarrarekin, maite dutenik. Azkenean, alderdi politikoetatik kanpo dagoen herri mogimendu eta jende apurak egiten duela esango nuke euskararen alde egin behar den hainbat. «GOIERRITARRAK Goierriin, besteak beste, adibidez. Kontsijna modura jarri euskara eta zerbait inportantea bada, erdaraz, zer espero daiteke partiduetatik? Ez euskararentzat onik etorriko denik. Ez da indarrik egin, batzuk gehixea-go besteak gutxixea-go, osotaro ezer gutxi. Antolatuta beharrekoa partiduetatik kanpo antolatuta behar delakoan, arrazoi osoa du «Euskal Herriaren Euskaraz»ek

Sentimendua dagoenean bai, baina arrazoi politikoa medio, diskutitu behar bada, «mesedez, erdaraz!». Bestalde, abertzaletasuna/euskalduntasunari dagokionez, bada frantses analista bat dioena abertzaletasuna hizkuntzarekin lotua egon dela toki guztietan, salbu Irlandakoaren kasuan eta Euskal abertzaletasuna

geroz eta Irlandakoaren parekoagoa dela. Arrazoiak eman behar zaiola-koan nago. Egia esateko, gure aberri bakarria hizkuntza litzateke. Hor- tik aurrera ados edo ez ados egon ninteke nire hizkun-berkideekin, baina horra mugatu behar da nire burua. Alderdiek engainatu eta iruzur egin digute, ez dute benetan si- nesten batzuetan diotenez.

EKBek egin zuen saioa «Bategi- nik»ekin, euskararen alde alderdiak batzeko. Zoritzarrez ikusi zen, no- la-hala, PNV eta EEK atzera egiten zutela, EA erdipuzdizka. *Kriminali- zatu egin nahi da euskara eta oke- rrena da euskaldun batzuk egin na- hi dutela hori. Euskalduna izatea nola ez den garantiatzen jatorra izate- ko...!*

— Herriarengandik urrun, aurrean «euskera berri ori», nola dakusazu euskara batuaren auzia, auzi irabazia?

— Idatzitako hizkuntza batek be- har du izan batua. Izan dadila gipuz- kera batua, bizkaiera batua edo ka- suan kasukoa. Euskaldun jendea ez da egon ohiturik euskaraz irakurtze- na, ez bere euskalkian ere. Adibide ugari eman liteke. Arazoa da ez ba- tuak ez gipuzkera batua ez dela gehiago irakurtzen. Gure jendeak ez duela kultur hizkuntza eta tresna be- zala ikusi euskara. ETB ikustera ohi- tu egin da jendea eta hizkuntz mai- latxo bat ere, orain urte batzu pen- tsaiezina, bereganatu du he- rri-jen-deak. Herri bat bagara, elkar ulertu behar dugu. Gurekin geure erara hitz egitea beste gauza bat da. Batua idazteko-eta bidea dela klaro dago.

— Eta, azkenaldian Goierriin mogimendutxoren bat nabari du- zu euskara-kultura alorretan?

— Ez nago jantziegia gaian. Orain arte herrietan, garai batean ez beza- la, egin diren gauzak «Kultur Bidee- ta» eta halakoxeak egin dira. Nahi- ko uniformeak, ez? Maila batean onuragarriak direla, aukera ematen dutelako euskararen egoera norma- lizatzeke. Hori gertatzen da erakun- de batzuk apoiatzen dutenean. Hor- tik aurrera zer egiten den ez dut ge- hiegi ezagutzen. «Arlote» irratia noi- zik eta behin entzun dut, ia beti er- daraz, entzun ere; beraz, oso gauza arriskutsua iruditzen zait: jende gaz- tea da, zerbait aurrera ateratzeko gauza eta berritzeko gai dena eta hori gure hizkuntzatik kanpo egiten denean ezin liteke izan gure aldeko. Ez dut esango gure kontrakoa denik ere, baina... Garai batean zeinek kantatzen zuten erdaraz hemen? Goierriko talde musikal gehienak er-

daraz ari dira. Segura Irratia, urtee- tan beste horretan ari dena, beti esan ohi dena euskararen alde ari dela... Hizkuntzaren aldetik, behar- bada, ez da gehiegi aurreratu, eko- logia aldetik, emakumeen egoera al- detik, ordea, duela 10 urte uste zena baino gehiago.

Gainantzean, mogimendu batzu, AEK, gure aldizkari hau, EHE, lagun- tza gutxiekin egin egiten dutenak. Garai bateko ikastolen antzera. Bide hori jorratu behar da, ahal den leku- tik heldu eta ahal dena egin, ez itxa- ron subentziora ailegatu edo giroa egokitu arte, eragin. Kultur etxe as- ko egin dira Goierriin, garai batean futbol-zelai asko bezala. Orain kon- tua da horiek nola bete. Azken ba- tean, kulturaren definizioa zer da, denbora pasatzeko bide berriak ika- sia ala den gizakia argitzeko bide bat? Orain arte badirudi lehenengoa dela, telebistari begira egon gabe erakustea. Maila honetan, GOIERRI- TARRA bezalako aldizkaria oso in- teresgarria da elkar ezagutzarako.

— Emakumea aipatu duzu. Min- tza gaitzen emakumeaz. Aurre- ratu da...baina bada «baina»rik?

— Zeregin handia dagoela uste dut. Eman ditugula aurrepausu ga- rrantzizko batzu maila askotan. Ho- rietako bat etxekoandre mundu ho- ri, hain akomplejatua, gaur ireki egin dela. Emakumeak bizi izan duen errepresioa, morala, e.a. piska bat hautsi egin dela. Hala ere gizartea, modu batera nola bestera, lehen be- zain matxista segitzen duela. Ez di- tugu kota guztiak irabazi, borroka oso luzea izango da eta, gure egoera aldatzeko, E.H.koa bezalaxe, egon beharko du iraulketa bat edo amil- tze bat.

Ez jakintasun asko dago oraindik, jeneralean, emakumearentzako arrisku bat izaten jarraitzen du se- xualitatean. Orain arte hala izan da, hori asemituta zeukan emakumeak, halabeharrez, eta hemendik aurrera hala izango dela. Gizonezkoek ez dute aipatu hartzen. Esperimentu guztiak, antisorgailuak eta, emaku- menzkoekin egiten dira nahiz eta gi- zonezkoekin errezagoa litzatekeen. Asko teorizatu liteke baina nire iri- tziz suertatu behar den batailiarik handiena etxe barrenetan eman be- har da. Etxez kanpoko errespeto bat lortu dugu, inposatu dugunok, fami- liaren barnean nabarmena da.

Gizarte zati handi bat arduratuta dago gai honi buruz baino asko ge- ratzen da oraindik. Zer esanik ez egunetik egunera hazten den bor- txaketa arazoarekin, delitu sexua- lak, e.a. Bada desinformazioz gaz-

Tere Irastortzarekin

te jende artean, eta mutilek duten eredua, entzuten diren kanten arabera, orain 15 urtekoa, desromantizatua, agresiboagoa, sasi-punka. Oso «grazioso»ak, oso «gizontxo»-enak...

— Beraz, mendealeko alternatiba saioak pikutara joan ziren sistemak jan zituelarik, orain komunismoen eta iraultzen «deskalabru»ak datoz; kapitalismoaren ezaugarri eta bitxikeria onenei erreparatzen zaie. Zer eragin izan ditzake gauzok gure artean?

— Egia da deskalabratzen direla. Ez naiz sekula Errusiaren tamainako inperio baten alde egon nazionalista naizelako. Baina demagun Hegoamerika gehiena kapitalista dela, eta Afrika gehiena eta han ez direla ondo bizi ezta gutxiago ere, jendea gosez hiltzen da. Beste gauza bat da «komunismoa» deituak betetzen ote duen agindutako komunismoa. Gobernurik eza dela esango nuke gobernu onena. Hori ezinezkoa da jendetza ikaragarrietako ziudade, eta nazioetan. Emakumeekin berdin pasatu da: idealizatu da pentsamendua, badirudi denok liberalagoak garaela baina era berean gure morala

lasatu da eta ez dugu benetan sinisten gizartea aldatu behar denik. Zergatik ez dugu sinisten? Bada gu mugaren alde honetan bizi garelako, eta ez miseriaren fronteran. Baina jendea gosez hiltzen bada, da Okzidentea horrela bizi delako. Hortaz internazionalismoa behin ere baino edo beti bezain garrantzizkoa da. Gorde behar da utopia bat nahiz eta errealtatean errealista izan. Ahaztu gabe, ordea. Zer eragin dezakeen guzti honek? EEBBetan milioka pobre bizi dira, analfabetoak milioka, hilkortasuna latza da Harlem-en. Hori ez dugu ikusten «Dallas» edo telebistan ikusten ez delako. Badirudi gure gizartea ezin zorientsuago dela. Garai baten igandeetan mezatara joatea beste biderik ez zen mundua ezagutzeko. Egun telebista dugu.

Ez zait gustatzen, jakina, egiten ari garen gizarte modua. Badakit beharbada 29 urterekin zerbait pentsatzeko garaia dela, baina egia da ere sentsibilitatea galtzen goazela, gure hezkuntza halakoa izan delako. «Onak» eta «txarrak»en arteko auzia ez da kuestionatzen, ez gizarte portaera patroiak, metafora gisara «Los Picapiedras»en gizarte eredura iris-

ten ari gara. Dena dugu, zienttifikoki; norberaren gorputzaren aldeko sentsibilizazio uholdea dugu gainean, eta ez gauza bera inteligenziaren aldeko sentsibilizazioarekin. Badirudi, berez, normala dela kartzela eta sikiatrikoak egon egotea; eta «asidatu» nazkanteak. Badakigu zer gizarte mota egiten ari garen; beste gauza bat da hori errekonozitu nahi izatea; beti badira limosnatxoak jende pobrearentzat, haiek isiltzeko. Dena dela, nahiago dut diru bat ematea pertsonalki eta ez loterian gastatzea. Gure gizartean balore handia ematen zaio diruari norberaren probetxurako denean eta badirudi gero inork ez daukagula dirurik baten bat, kalean, zerbaiterako eskean dugunean. Edonolako gizarte arazoak, gizarteak konpondu behar ditu. Ez bada planifikaziorik geure poltsikotik emendatu behar ditugu.

J. Arano
A. Larrañaga

..o




AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:
Lazkao: 88 72 99
Beasain: 88 18 96
GIPUZKOA



HORMA
PREFABRIKATUAK

Txindoki Etxea
Tfnoa: 88 58 00/04
ZALDIBIA



Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

GURPIL

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN

RAIMON MUSIKAL

SANYO & JAMO PROFESIONALAK
BANATZAILE OFIZIALA
Korda eta Haize musikagailuak

ZALDIZURRAETA, z/g.
Tfnoa: 88 55 20

BEASAIN

HIDALGO

BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

MAKINA BAT BITXIKERIA OSPAKIZUN HORREN INGURUAN

Seguran, Aste Santua bizi egiten da

Urtez urte, Seguran biziki ospatzen da Aste Santua, zenbait funtzio eta prozesioak arrakasta izugarria lortu dute azkenaldi honetan. Historikoki eta kulturalki bederen honek duen garrantzia aipatzakoa da eta horretarako-xe Laureano Telleria antolatzaileetako batengana jo dugu galdezka eta jakin minez. Laureano berak hitz jario aberats batez, hainbat eta hainbat pasadizu kontatu dizkigu, elkarrizketa xamur eta interesgarri honen bidez zertzelada ugari eskeiniz.

— Zer dela eta honelako ospea Segurako Aste Santuak ?

— Lehenengo arrazoia, gaurarte iraun ahal izatea eta egiten jarraitzea, Hondarrabian bezelaxe, baina Segura da bakarrik ostegunez eta ostiralez prozesioa egiten duena, alegia bi egunetan. Lehen Ostegun Santuko prozesioa gauez egiten omen zen, honela dio 1727 urteko dokumentu batek. Izan ere herri gizonak eta kleroak auzi bat izan omen zuten egunez ala gauez prozesioa egitearen komenientziaz, eta honela dio orduko idatzi batek: «...en que de inmemorial tiempo se acostumbra hacer esta procesión pública». Beraz noiztik egiten ote da prozesioa hemen...!

— Prozesio edo elizkizunetan zer da aipagarriena, bereziena ?

— Jendeari gehien gustatzen zaiona erromatarren ikuskizuna da, aingeruen liluragarritasuna, San Migel Arkangelaren haunditasuna eta *andatan* doazen irudiek ezartzen duten errespetua nabarmena da. Elizan berriz, fedeaz gain Jesus gurutziltzatuaren jexieraren antzezpena hunkigarria da, bakarra, ikustekoa. Ostegunetan, jendeak ulertzen ez duen beste zerbaite egiten da, alégia, Jau-na preso edo giltzapean uzten da, giltza alkateari ematen zaio hurrengo ostiral eguna arte, irekitzen den arte, bitartean soldadoak zaintzen dute, eta gauez belak eginaz herriko jendeak.



— Ospakizun hauen ardatza fede-a izanik, irudiak eta arte alde-tik zer derizkiozu ?

— Benetan San Juanen irudia aipagarria da, aurpegia bakarrik ikusten bazaio ere, arroparik gabe atera behar litzakeela esaten duenik ere bada, ain ondo egina dagoenez. Irudi zaharrenetako bat Ama Dolo-reetakoaena dugu, bihotzeko mina bere aurpegian isladatzen da, zira-rragarria da. Beste irudi bat bada, 1937 urtea ezgeroztik kaleratzen ha-si zena, alegia Gurutziltzatuarena, «El Cristo del Montañes» esaten zaio, honek berak egina, baliotsua dela diote.

— Guzira zenbait *anda* edo pauso izaten dira?

— *Andak* hamabi izaten dira, 250tik 300ko pisua dutelarik, eta Je-susen Gurutz-bidearen ezaugarri aipagarrienak azaltzen dira *anda* hauetan, hasi San Juan Ebangelista-rengandik eta Jesus hilobian dar-matena arte. Bainan gero badira beste «pasos vivientes» esaten zaie-nak, hauek dira ba nazarenoak, pe-nitenteak, aingeruak, San Migel Ar-kangel, soldadu erromatarrek eta-bar etabar... hauek osatzen dute prozesioa.

— Zenbait pertsonak parte har-tzen dute ekitaldi hauetan?

— Denak kontuan hartuta, hau da, korua, txistulariak, banda, *anda* eramaleak etabar... Guztira 300 la-gunek parte hartzen dute. Kontuan hartzen badugu 1.500 biztanleko he-rri bat gerala, nabarmena da partai-detza zabala dela.

— Aurtengo honetan berrikun-tzaren bat ba ahal da?

— Bai, bada bai, orain arte txistu-lariak kaleko jantziz parte hartzen zuten prozesioan eta, behar bada, lekuz kanpo bezala gelditzen ziren. Aurtengorako talde guztiarentzat di-seinu berezi bat egin nahi izan da, ondo pentsatu eta aukeratutako mo-deloko bat hain zuzen ere, XVI. men-deko «Euskal solteroaren janzkera» bezela aukeratu den modeloa. Edor-ta Kortadi izan degu aholkularia eta euskaldunen sustraieetatik hartu den zerbaite prozesioari erantsi nahi izan zaio. Oso jantzi politak dira. Hemen expikatzea ez da erraza.

— San Migel Arkangelaren pape-ra prozesioan zein da?

— Aingeru buru bezala, harro eta tente joaten da. Daraman jantziaren diseinua kopiatzeko ere oso zaila eta espeziala da, gaur egin behar balitz, egingo lukeenik bai ote?... Ez dakit.

Ohiturari jarraikiz, San Migel janzen dena, ostiraleko sermolaria eta herriko algoazil edo meñoa, alkatteak bere etxera bazkaltzera gonbidatzen ditu, horrela egin da eta horrelaxe jarraitzen degu. Elizan berriz, dantza baten pauso batzuk egiten ditu aldizka aldizka. Eta urtero ezberdin izaten denez aurrekoak ondorengoari dantza erakusteko ardua edo obligazioa hartzen du bere gain.

— **Erromatar soldaduak ere ñabardura sortzen dute, nondik inguratu dituzue?**

— Soldaduak daramatzaten kora-za, eskudo, kaskoak eta abar Parisen eginak dira. 1890 urtean gutxi gora behera Lardizabaltarrek, handikiek, eskatu eta ekarriak izan ziren. Orduan bederatzi jantziengatik 2.500 pezeta ordaindu omen ziren (orain sandalia pare 3.000 pzta.). Jantziak eskatzeko neurriak bidali zirenean, esaten dute, Paristik erantzun zutela, alegia, pertsona normalen neurriak bidaltzeko, jantziak egitea nahi bazuten. Berririo erantzun omen zitzairen bidalitako neurrietara moldatzeko. Izan ere soldadu jatzeko aukeratuak 1,90tik gorakoak eta giza puska galantak omen ziren. Aukeraketa berri hauek sortu omen zuten istilurik pranko herriko zenbait senditan, lehendik zabiltzanak eta aukeratu berrien artean alegia.

— **Zenbait artean antolatzen duzue guzti hau?**



— Komisia osatzen dugunak bost lagun gera, baina montatzerakoan eta santu-jantze lanetan etabarretan laguntza zabala izaten degu. Eta aipatu gabe ez nuke utzi nahi, eta bide batez eskerrak eman, laguntzaile guziei eta santu eramale guziei, ze lehengo urtean ere laguntzaileak sobran izan genituen, eta detaile hori guretzat oso pozgarria eta animagarrria izaten zaigu.

— **Gerora begira berrikuntzarik edo aldakuntzarik ikusten duzue?**

— Orain galdurik badago ere, duela 35 urte arte egiten zen elizkizun bat berreskuratu nahi genuke, *Barrabas* izenez ezagutzen zena. orduan asteazken arratsaldean egiten zen, maitinak kantatuz, hamasei kandela haundi aldizka-aldizka itzali ahalan, ume alajeri haundi bat pilatzen ginen, bakoitzak «mazo» bat es-

Segura



kuetan zeramalarik eta honelako kopla antzeko bat esaten genuen denok batera:

Barrabas Bibolin Judas

Satanas Poltsero

Dirudik Ez Eta

Lotsero. Jo, Jo, Jo, Jo, Jo, Jo,

eta horrela bost bat minututan mazoekin lurra golpazten genuen, noiz behinka kopla errepikatuz. Hura ere ikustekoa zen... («Oficio de tinieblas» delakoa-edo)

Laureano Telleriarekin ezin liteke inor aspertu, baina paperaren neurriak ez du barkatzen eta aurtengoz honekin beharko.

«Laiotz», (Rafael Gerriko)

■ ■ ○

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO

TOYOTA

EUSKO-NIPON, S.A.

Katea Hauzoa
Apartado 51 - Tel. 88 42 38

20200 BEASAIN



TXALUPA
ERRETEGIA

Arrain, marisko eta okelak parrilan

P-21 ZENTRU KOMERTZIALA Tfnoa: 88 84 07 ORDIZIA



auto-eskola **ORDIZIA**

LA UNION Y EL FENIX ASEGURAOAK

Padre Urdaneta, 10
Tfnoa: 88 72 76

ORDIZIA

ZERAINGOAREN MEMORIARI JUSTIZIA EGINEZ

Petrekilo, Zumalakarregiren konfiantza osokoa

Petrekilo izan dugu Zerainen histori txikian, gizonik ospetsuenetako bat, idazki hau bere bizitza hobetoxeago ezagutzeko baliagarri izan dadila da gure nahia. Berak Zeraini ospe haundia eman zion eta baita bere ondorengo hezur-hausiak sendatzen dituzten denei «petrekilo» goitizena. Rerarentzat lan txiki honen bidez gure omenik haundiena.

Zerainek eman duen semerik ospetsuena esan dezakegu Jose Frantzisko Telleria, «Petrekillo» gaitzizenez ezagunagoa dela; eta bere ospea, ezur-hausiak eta bihurrituak sendatzeko zuen trebetasunari zor dio.

Petrekiloren sendia

Gure garaian Petrekilo bezala ezagutzen duguna ez zen kurandero bakarra izan bere sendian, hasera eman ziona bere aita izan zen eta gero jarraitzaileak izan zituen beren ondorengoengan.

Juan Frantzisko Tomas Telleria Arrieta 1721. Uztailaren 12an Barbari haundi baserrian jaioa zen eta artzaia zelarik hortik jaio zitzaion ezurhausia konpontzeko trebetasuna, ardien hanka hausia zuzenduz, geroago bere ezagunen bihurrituak sendatzen hasi eta horrela aurrera jarraitu zuen nahiko ezaguna egin zelarik inguru hauetan, ardietatik baino diru gehiago jasoaz lan honekin.

Bi aldiz ezkondu zen, lehenengoan M^a Josefa Guridirekin, lau seme izan zituelarik Andres (1757), Juan Antonio (1759), Juan Inazio (1762) eta Manuel (1765) eta bigarrenean Mutiloan ezkon zen Juana Uriberekin eta zazpi seme-alaba izan zituzten M^a Josefa (1767), Frantziska Antoni a(1772), Jose Frantzisko (1774) (gero Petrekilo ospetusa izango zena), M^a Frantziska (1777), Jose Isidro (1782) eta berriz M^a Josefa (1787).



Barbaritik Aranera joan ziren bizitzera eta baserri honetan jaio zen Jose Frantzisko 1774ko Urriaren 1an bataiatua izan zelarik.

Ez dago ezer garbirik bere gazte denboran egin zuenari buruz baina dudarik gabeko eskola haundirik ez zuela izango garai haietan eta baserriko lanetan aitarekin batera ibiliko zela eta berarekin baita ere ikasiko zuen hezur-hausiak sendatzen.

Perez Galdosen esanez gizon txikia zen, bizia, hizlari trebea eta ile-soila, buru beltz beltzarekin, bere ospea Madrideraino iritxi zen eta esaten zenez Fernando VII.naren erregetzen han ere ezaguna egin zen.

Jose Frantzisko Telleria Uribe 1803. Martxoaren 20an ezkondu

zen M^a Josefa Arrieta Aizpeolearekin eta lau seme-alaba izan zituzten: Jose Frantzisko (1804), Jose Lorentzo (1807), Fermin (1810) (geroago Zeraingo apaiza izatera iritxiko zena) eta M^a Frantziska (1813).

Urteetan aurrera zihoan bezala baserria uzten joan zen seme eta morroien eskuetan eta kurandero bezala ibili zen herririk herri.

Baita ere aipagarria da Lasa Frantziskotarrak aztertu duenez frantziar gudariak garai haietan sartu zirenean haien aurka borrokatzen zutenei janariak inguratzen zietela, baita ere behin baino gehiagotan Gipuzkoako batailoietan balaz joak izan zirenei ere sendatu zien, hoiengan artean denen Komandante jenerala zen Gaspar Jauregi Urretxuarrari.

Gaspar Jauregi «El Pastor» goitizenez ezagunagoa, gerrilari oso ospetsua izan zen, bere idazkari bezala Tomas Zumalakarregi hasi zen eta historiari dionez hari idazten erakutsi ziona.

Garai haietako idazkietan ikusi daitekenez gutxienez hiru alditan sendatu zuen Petrekilok Jauregi jenerala.

Petrekilo Kuranderoa

Garai haietako kuranderoak medikuntza ofizialak oso gaizki ikusiak zeuzkan eta legez kanpo zeuden baino Petrekilo beste denetatik bereizten zen zeren ez zuen lana egiten izkutuan baizik alderantziz, behin baino gehiagotan herriko medikuaren aurrean eta bere ospe izugarria ez zuen lortu kasualitatez bere lanari esker baizik, ehundaka lagun sendatu zituen. Hoi en artean goi-mailako jendea eta beste zirujau batzu lortu ezin zituzten sendak untzak lortu zituen berak.

Ospea bai baino titulorik ez zuen eta horrek eragozpenak ekarri zituen zenbait zirujauaren aurrean eta Gipuzkoako Foru Aldundiako artxi-boetan azaltzen denez bi idazki zuzendu zituen. Lehenengoan eskatzen du kurandero bezala jarraitzeko baimena eta horretarako bi azkeneko urtetan, 1819tik 1821teraino, egindako sendaketak azaltzen ditu eta beste idazkian eskatzen dio Foru Aldundiari eskatzeko Gipuzkoako udalei bere iritzia haren sendaketei buruz.

Foru Aldundiak gerora egin zuen idazkian goraipenak besterik ez da azaltzen, zenbait udaletako alkateek Jaungoikoaren doain berezia zuela esan zuten eta zenbait zirujau berriz gorputzak dituen hezurrei buruz ezagupide haundia zuela.

Zeraingo Alkate

Jose Frantzisko Telleriaren izena Zeraingo Udaleko zenbait kargutan azaltzen da 1808tik 1817. urterarte eta 1821tik 1823ra Zeraingo alkate bezala. Ez dago idazki haundirik garai hoetakorik, azaltzen dira bi idazki adierazten dutenak Petrekiloren jenio bizia eta aginpe gogorra.

Lehenengo azaltzen da Ramon Arsuagaren denuntzi bat Foru Aldundira zuzendua, Hau Zeraingo zirujau zen urte hauetan eta azaltzen du Petrekilok gartzelan sartu zueneko bere eritzi berdina ez edukitzeagatik nork joan zezakeen edo ez soldaduskara osasun arazoetatik erabakitzekoan.

Bigarrenean Frantzisko Alustizak agertzen du alkateak Udal legei jaramonik egin gabe izendatzen zituela bere lagunak Udal karguetarako.

Zumalakarregiren heriotza

Historiaren barruan petrekilo ezagunena egin da Zumalakarregiri bere hiltzorian ahaleginak egiteagatik.

1835ko Udaberrian Zumalakarregi jeneralak Bergarako herria hartu zuen, «Don Karlos» karlisten burua berarekin zela Bergarako enparantzan sartu zirelarik liberalak menderatu ondoren; baina ez zen dena alaitasuna. Zumalakarregi ez zebilen ondo osasun aldetik eta gainera ez zen bat etortzen «Don Karlos» ekin nora jo behar zuten erabakitze koan, honek esaten zuen Bilbo hartu behar zutela eta Zumalakarregik Madrilera zuzenean bideratu behar zirela nolanahi erabakia Don Karlosek hartu zuen eta Zumalakarregi bere amorru guziarekin Durango aldera zuzendu zen.

1835ko Ekainaren 10an hasi ziren karlisten kainoiak zartaka eta hila-

ren 15an Begoñako balkoi batean zegoela bala galdu batek bere esku-biko hankan jo zuen, belauna baino beheaxeago berna-hezurra ikutuz. Dirudenez bere hankan jo aurretik balkoiko burnia jo zuen balak eta gerora horrek zer ikusi handia izan zuen, ez bait zen zuzenean sartu eta aurkitzerako hondamendi haundiak egin zioten hankan.

Gerediaga medikuak ikusi zuen eta esan zuen lehen bait lehen bala atera behar zela baina Zumalakarregi eta bere kideak ezezeko gogorra eman zioten eta balsamo bat jarri besterik ez zion egin.

Zumalakarregiren buru gogorke-riaz eta beste denen eritziaren aurka Zegamarako izango zen bide neketsu eta mingarria hartu zuen, han bere lehengusu edo ilobaren etxera egotera.

Lehenengo egunean Durangoarteko bidea osatu zuten, han sendagile ingeles batek ikusi zuen eta honek ere bala atera egin behar zela esan zion baina ez zegoela kezkarik, ebagia ondo zeukala eta infeziorik ez.

Hurrengo goizean azaldu zion Gerediagari lehenbiziko aldiz bere asmoa, bere ezaguna zen Petrekilo kuranderoarengana joan nahia.

Zumalakarregi bere konfidantza osoa jarria zeukan Petrekilorengan eta beste inori ez zion jaramonik egiten.

Eguerdi aldera Urretxura iritsi ziren eta han zegoen Petrekilo, Zabalapaizarekin, eta hor egin zion lehenbiziko sendakuntza, gaua Urretxun pasa ondoren Ormaiztegi iri-txi ziren hurrengo eguneko eguerdi-ko gauerako Zegaman zirelarik.

Zegaman elkartu ziren hiru kurandero Petrekilo buru zutelarik, Bolloki eta Gelosekin batera, hauek bala atera behar zelako eritzikoak ziren Gerediagaren eritziaren aurka.



Honek ezer jakin gabe bala atertzeko ahaleginak egin zituzten baina ebagia gaiztotzea beste ezer ez zuten lortu.

Gerediagak gaizkitzen zihola ikusirik laurak erabakiak hartzera eskatu zuen baino alferrik, gau hartan bertan bi ebaki haundi eginaz bala atera zioten hankatik denen pozera-ko, hau zen 1835ko Ekainaren 23an eta esaten denez Zegamako kaleetan erakutsiz ibili ziren, baina pozak gutxi iraun zuen Zumalakarregiren osasuna gaizkitzen joan zen eta handik hamar ordura hil egin zen 1835ko Ekainaren 24an.

Petrekiloren heriotza

Esaerak dioenez Petrekilo hilda azaldu zen Udana gainean bere mandoa ondoan zuela; oraindik ere azaltzen da hilarri bat hil zen lekuan.

Dirudienez Oñatitik etxera zeto-rra gaizki sentitu eta mandotik jetti ondoren hil zen, kolperik ez bait zuen autopsiak dioenez. Oñatira bere semearentzako andragai bila joana omen zen garai hartako esaerak diotenez. Oñatiko elizan lur eman zioteneko iskribu hau azaltzen da: «Jose Telleria, 66 urte Zerainen jaio eta bizi dena, Josefa Arrietaren senarra, hil da dirudienez mandotik erorita 1842ko Abuztuaren 11an, Ondolatza baserri aldean, Inunziasa deitzen zaion lekuan, autopsia egin ondoren Oñatiko kanposantuan lurperatua izan da».

Familia izan ziren Petrekiloak

Bere seme zaharrena izan zuen jarraitzaile, Jose Frantzisko Telleria Arrieta, «Petri» bezala ezaguna Zerainen. Lan asko egin beharrik ez zuen izan herentzi ona jaso bait zuen, esaten denez hiru morroi eta bi neskame ziren garai haietan Aranen.

Josefa Inazia Lizarribar Arteaga orendaindarrarekin ezkondu zen 50 urte zituela, eta seme-alabarik ez zuten izan.

Laugarren eta azken Petrekiloa Tiburtzio Gaztañaga Lizarribar izan zen, hau Ordiziako Aramendigoiena baserrian jaioa eta Jose Frantziskoren iloba. Hau kurandero baino zerbait gehiagora iritxi zen Abaltzisketako «praktikante» izatera iritxi bait zen.



Andoni Alustiza




Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA



GABIONA

Errodamentuak, S.A. ..

F.A.G. eta G.P.Z.en banatzailea

Biltegi eta Bulegoak: GOIERRI KALEA, z/g.
Tfnoa: 88 45 00
Fax: 88 99 06

20240 ORDIZIA



Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN



IRVROK S.L.
ZERBITZU OFIZIALA



N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnoak: 88 51 50 - 88 51 54
ORDIZIA

Bilore

Erlearen pozoina botika ote?

Askotan esan izan da, erletan lan egiten dutenek, hainbat ziztada jasan ondoren, ez dutela ez erreumarik, ez gotarik, ez artitisik.

Gaurregun aurrerapen haundia egin da sendatzeko era honetan, ez dira erle biziak ziztatzeko erabiltzen.

Gaurdaino erleei ezta kentzen genien, hemendik aurrera, gizonak gizonari izerdia ezezik, erleari pozoina ere xurgatuko dio. Horraino iritxi behar genuen!

Erleek alimentu gozoa eskaintzen dute, bai nonnahi, bai hemen ere.

— Erleek une lasaigarriak ematen dizkigute erlezainoi.

— Baina, erleek ziztada mingarriak ere sartzten dizkiete beren erlauntzetara edonola, asmo maltzurrekin, inguratzen direnei.

— Eta artikulatu hau amaitzeko, laugarren puntutat, nik orain dela gutxi arte ez nekiena, zera da: *Gaur erleen ziztada botika bilakatzen ari munduan zehar.*

Lehenik, hara hemen, Goierri eskualdeko zenbait datu erlazantzari buruz.

1990. urtearen hastapenetan, Gipuzkoako Erlazainen Elkartearen Goierriko 123 erlazain zeuden, izena emanak. Bazkide horiek 504 erlauntza zeuzkaten, denak kutxa modernotan, baina bazeuden oraindik beste 84 erlauntza kutxa edo enbor zaharretan.

Bailadako ezti ekoizpenari begira, Gipuzkoako Erlazantzako Aldizkariak dioenez, —6 ale argitaratuak ditu—, 1987an 54 kilo ezti bakarrik jaso zela aitortzen du. Elkartearen lehen inkesta eta lehen urtea zen. Bigarren urtean, hau da, 1988an, 643 kilo eta 1989an, berriz, 7.560 kilo agertzen dira.

Datu horiek honela interpreta daitezke:

— Erlazainek, 1989. urtean, datu gehiago bidali dute Gipuzkoako Erlazainen Elkartera.

— Erlazaingoa hiru azken urte hauetan sendotzen joan da Goierriko eskualdean.

— Eta azken urtea, hots 1989ko urtea hain zuzen, aspaldiko urterik oparoena izan dugu.

Goierriko datuak kontuan izanik, pasa nadin nere erlazantzako zenbait esperientzietara.


Ez nuen uste, 1986an lehen erle

kaxa zaharra, Intxaurraundi baserri-tik hartu eta nere baserrira eraman nuenean, hainbat ordu gozo, interresgarri, lasaigarri eman behar zizkidatenik «erle xahar», animalia zoragarri horiek.

Gauza bat da, hobby honetan normalean zorrik ez dela egiten, eta beste gauza bat imajina ezin den eta ezarian ezarian sartzten den lan sorgin, lan-sare entretenigarria.

Lan misteriotsua, noiznahi ezustekoren bat gerta dakizukeena. Orduak eta orduak eramaten dizkiote edozein erlazaini animalia langile horiek.

Benetan gauza harrigarriak ikusten dira, intsektu hauengan. Esaterako, langileak soilik eta beti agintzen duen, eta nik ezagutzen dudan



Erlearen eztena

lantoki bakarra erlauntza da. Langileek erabakiko dute noiz aldatu behar duten erregin zaharra, eta erregin berria noiz sortu. Langileek hilko dituzte erlamandoak beren eztezez, uda-udazkenean janaria gutxitzen hasten zaienean. Erlamandoek ez darabate eztenik. Udaberriaren azarnak somatzen dituztenean, erregina arraultze gehiago ipintzen jarriko dute, horretarako janari berezia emango bait diote.





Erlauntzako lan guztien ardura berek eramango dute, bai aginpidea ere. Naturaren oreka horrela da.

Orain, gainera, barroa deitzen den gaitz berri honekin, erleei, bakarrik ezin gainditu duten oztopoa sortu zaie. Arrazoi bat gehiago erleengana hurbiltzeko. Erlauntza bati guztiak galduko dira edo, beste era batera esanda, tratamendua ematen ez zaion erlauntza, kitto.

Ikaragarritzko beldurra nien nik erleei. Hauekiko harremanak normalizatzen asko kostatu zitzaidan, eta erleen ziztadek erabat urduri jarzen ninduten. Gaur, egoera hori gainditu dut eta gainera, mesedegariak direla jakinez gero ziztada-

txoak, noizbehinka bat edo beste hartzeko prest nago, ez naiz batere aztoratzen.

Erleak tratatzen ikasi egiten da, beste edozertan bezala, eta geroz eta lasaitasun handiagoa hartzen da. Eta hori, egiaz, erleak nabaritzen du. Zenbat eta lasaitasun eta patxada handiagoa gorde erlazantzan, orduan eta arreta txikiagoa eskaintzen dute erleek. Askoz hobe.

Jakingarria da guztiz erlearen eztena sartu ondorengo jokabidea. Erleak bere burua erlezainari lotuta senti ohi du, eta eten nahirik biraka hasten da daratulo bat askatzeko modura. Halako batean, ezten horren ondoko soin zati bat libratuko zaio. Pozoinaren usainak erakarri eta aztoratuta beste erleek ere miztoa sartzera joko dute. Horrelakotan, usaina kentzeko on da zaurira ke mordoa botatzea.

Erlearen eztenaren mekanismoa eta ziztadaren seta norainokoa den ikusteko, ezten sakabanatuak, erle biziak egingo lukeen bezala, ziztaka jarraitzen du, bere pozoin-boltza huste arte.

Erleak bere eztenaren ziztada autodefentsarako erabili ohi du.

Baina, gaur gizonak horri ere aurkitu omen dio beste erabilpen bat. Egia ote erle-pozoina botika dela edo izan daitekeela?

Arlo honetan sendagile askok lan egin du, sonatuena, ordea, erleen pozoina sendabiderako erabiltzen austriar Phillip Terc Dotorea izan da. Berrogeitaka urtetan erreuma sendatzen jardun ondoren, erleen ziztadaz senda zitekeela aitortu zuen.

Pello Aranburu
(Lazkao-ko «Maizpide»
Euskaltegiko zuzendari)

UKIPEN LENTEAK • AUDIFONOAK • INDUSTRIARAKO
BETAURREKOAK • BABESLEAK • AUDIOMETRIAK •
IKUSPEN ERREABILITAPENA

San Pedro, 22 - Tel. z. 76 15 75 - BERGARA
J.Carlos Guerra, 1 - Tel. z. 79 29 95 - ARRASATE
Gudarien Etorbidea, s/n - Tel. z. 88 99 88 - ORDIZIA

"MULTIOPTICAS" en abantailak

MULTIOPTICAS

J. Larramaga
OPTIKA
GARANTIAREKIN



LANCIA
ETXE - AZPI

- Goierriko banatzaile ofiziala
- Instalakuntza modernoak
- Berebil berriak eta okasiokoak



Tfnoak: 88 10 61 - 88 29 46

20216 ORMAIZTEGI

Ialgi, ialgi hadi mundura

Otsailak hogeitabi dituen hone-tan, erabat ez bada ere, harri-tuta utzi nauen zerbait ikusi dut Gasteizko liburutenda ezagun bateko eskaparatean. Berez ez luke oso harrigarria izan behar, baina «sevillanak» entzun eta ikustea trikitia ikusi eta entzutea baino nor-malago den kaleotan, edozer da zi-legi.

Azkenaldian «Siberia» ezizenari uko egin nahian dabilen hiri dotore honetan, ez da euskara askorik entzuten (entzuten den apurra ostegun gabetan, parte zaharrean...), eta askok eta askok zer den ere ez dute jakingo. Behar bada, inoiz Fueros plazako probatokian ikusi duten for-zudoarekin lotuko dute. Neuk ere, handik negu gogorreko iluntzetan lepoa txamarrapean kizkur-kizkur eginda pasatzerakoan, gizonak harria arrastaka daramanean lurraren kontra ateratzen duen danbatekoak esnaturik, gorren mundu honetan plaza erdian baten bat garraixika ari dela pentsatzen dut, guri zeozer esan nahian. Orduan pentsatzen dut Euskal Herria badela eginez oihuka ari direla gutxi batzuk, ahalegin bi-zian.

Burutazioak burutazio, eskapara-tean ikusitakoa azalduko dizuet: hi-labetero edo, gehien saldutako libu-ruen zerrenda zegoen ikusgai. Haien artean Cela (aita-semeak), Rhudie, Eco eta abarren liburuak; ikusten denez izen handikoak de-nak. Bada, bigarren tokian, eskapa-rateko alea ere bertatik falta zela —akaso horrek ere zeozer esan na-hiko du—, Bernardo Atxagaren «Obabakoak» zegoen. Dena den, etzazue imajinazioa oso urruti era-man, ez bait zen «Obabakoak» en bertsio orijinala, gaztelararako itzul-pena baizik. Hala ere beste «mons-truo» horien artean gure bat ikus-teak izugarri harrotu ninduen. Gor-ren mundu hartan norbaitek entzu-ten zuela pentsa erazi zidan.

Euskal liburutendetako salmenta zerrenda guztietan —euskaraz argi-taratutakoan artean—, Atxagaren obra lehen postutik noiz eroriko zai egon naiz. Ez hala nahi dudalako, baizik eta fenomenoak zenbat irau-ten duen ikusteko. Baina, oraindik ere gehien gehien saltzen den libu-rua dugu Euskal Herriko edozein bazterretan.

Astesuarrak lan honekin lortuta-koa berebiziko garrantzia du Euskal Kulturaren esparru mugatuan. Hain zuzen ere, esparru mugatu hori gainditzea lortu duelako. Gainditzea hutsa asko delako, dudarik ez.

Dena den, oraintxe bertan go-goan ez dudan idazle ospetsu batek esan bezala: itzulpenak izugarrizko garrantzia du gure bizitzan, bestela ezin ezagutuko, ditugun maisulanak eskuratzen dizkigu eta gureak eza-gutzero ematen ditu. Beraz, guk ere gure apurrok ezagutzero eman be-har ditugu, kanpokoek gure berri izan dezaten.

Itzultze fenomeno hau berri sama-rra bada gure artean, are berriagoa da orain «Obabakoak»ekin gertatu dena. Hau da euskaratik gaztelania-ra eramatea. Nire ustez, kanpotik datozkigun lan interesgarrienak euskaratzea nahitaezkoa da; hala, gure kultura kanpoko ideia berriei fres-katuko dugulako eta, era berean, gurea zertan den ikusteko balioko digulako.

Hala ere, hori oso garrantzitsua izanik, gure produkzioak kanpoan zer harrera duen jakin beharra da-go, bide berriak urratu beharra, odolberritu, ongi ari garen ikusi, besteen moduan.

Hala, bada, gorantz, beherantz, alde guztietarantz egin behar du gu-re lanak; jasotzeko besterik ez bai-no, sortzeko ere gai garela eraku-tsiz; eta, gainera, tajuzko lanak sor-tzeko gauza.

Zulututako zakutik ale batek alde egiteak ez dio axola, baina harek beste batzuei ere kanporako bidea erakus diezaieke, jakina, zuloa ixten ez badugu.

Pello Goikoetxea
ataundarra, Gasteiztik



Euskalkeriak

Aurreko alean «Otsaila» izene-ko itzulpen zerbitzu berriaren zabaltzea iragartzen zenuten eta, gure partez ongi etorri dadila, guztiaren beharrean baikau-de. Bestalde, 2. alean hasitako «Eus-kalkeriak» sailari segida eman be-harko zeniteke goierritartxo ho-riek, nere ustez, ze ez bait dator ba-tere gaizki piska bat gehixeago pu-rista izatea, purista eta ez pureta.

Hementxe doakizue botepron-toan eta gauza onerako denbora oso gutxian bildu ditudan zenbait eus-kalkeria. A ze harrikada!

Revista «Lazkao» Aldizkaria. Apartado 38 Postapartu (sic); Non-bait: «Autobusak goiz eta berandu» (Arratsaldez izan orde); «Epaiketa fartxarik ez!»; Ordiziako Udalak: ¡BILGAILU! (Trafikoko seinal ba-tean); «Osaki-dietetika»: «Ogia egun osoan»; Iberduerok Santa Ana festa zoriontsuak opa dizkie ordiziatar guztiei «Diario»tik; «Zabale Okinde-gi»; «Iratxo dantzaleku. Kontsumi-

cio»txartela.; «Lazkao festivo: Agra-decimientos: eskerrekotasunak. Gentileza: Galantasun; «Berezita-sun», Otegi jantzi dendan; «Pastas Arruabarrena»; «Gozotasun denon-tzat» (Gozoa!); «Ordizian»: «65 co-mercios al servicio del Gohierri»; «Ertaina=Zipaio» (Jarrai); «Ertza-na=zipaio»; «Medaila bat bilatu da: arrazoa hemen», taberna batean; «Goierriko kanpo (?) kooperatibaren (Cooperativa católica del campo de-lakoa) fakturan: Emanaldi oharra (ordainagiria?), «Unitateak», «prezio» eta «guztia» eta guzti, adibidez; Ordiziako Udalak: Beira bilketa: (...) «Errekuperazio ingurunearen nar-rionaren (?) aurka doa» (sic); «Ami-gos del Aralar=Aralarko lagunak», Aralarko lagunak bai baina zein zei-nena?; zeineta zein? «(Tolosaren?) Babarrunako Elkartea», eta horrela sinfin...

Haueaz aparte, esan gabe doa, etxeetako, ateetako, letreroetako, telefono gidako e.a. etako grafia guz-tiz erdaldunak. Ortografia akats na-barmenak inprimategietako eta me-dioetako transkribatzaile eta mani-pulatzaileak (Hori manipulazioa, ho-ri!), beti bezala, erdaldunak direla-ko. Baina bost ajola! Horrek ez du garrantziarik!

Bienbitartean, Cervantesen hiz-kuntza inoiz ez goratuagoan bai moldatzen garela dotore, hasi esku-bi masimalistik, segi euskaldun «galego»tik zeharrean eta baita ez-ker abertzalera; azentuak eta ko-mak ederki asko jartzen ditugu kas-tillanoz; euskaraz egiten diren aka-tsen erdiak edo laurdenak erderaz aterako balira, a ze istiluak!

Eta, noski de los noskis, askoz okerrago erdara hutsean aritu eta euskaraz egiteaz edota gauzak euskaratzeaz arduratzen ez diren etxe-kalte, euskaldun falego eta judu ho-riena, zer esanik ez. Ez dute inongo errespeturik hain bihotzean darama-ten euskara hautseztatu horrekiko. Kintana, Gereño edo Muxikaren hiz-tegiak hartu, hitza literalki itzuli eta euskaldun zahar edota inor kristok ulertzen ez duen (eta ez ulertzeak sortzen digun lotsa eta trauma zer?) «euskano!» batetan jarriko dute le-treroa. Euskarazkoa edota astake-riazkoa bigarren mailan.

Euskara letrero luminosoan jar-tzeagatik zerga esentzioa izateko, berriz, denak pronto. Horrela Goie-rrri euskaldundu? Udaletxeak lagun Herria euskaldun? Onak gaude inde-pendentsiara iristeko!

Aintzane Arrieta (Beasain)

Txorimaloa sehaskan

Behin txorimalo txiki bat jaio zen. Txiki-txikia, txori txikiak baino txikiagoa. Ber begiak bi jostoratz buru ziren; bere burua, kristalezko kanika koxkorra; bere besoak, bi poxpolo erdi, eta hankak berriz, txotx puskatuak. Oraindik ez zuen ahorik, ez zekiela hitz egiten.

Txorimaloa oso txikia zen, txikiegi eta ez zuten ez gizonek ez andreak ikusten; ez hurrek ez txorimalo handiek; galsoroan sarturik, belarretan etzanik, inor ez zen konturatzen han zenik, eta berak ere ez zuen ezer esan, ahorik ez zuelako eta hitz egiten ez zekiela.


Inork ez zuela ikusten? Bai, norbaitek bai. Txori txikiak galsorora etortzen ziren, eta garitan sartu zirenean janari bila, txorimalo txikia ikusi zuten.

— Nor zara? Zein zara? Zer egiten duzu? —galdetu zioten, baina txorimalo txikiak erantzun ez, ezin erantzun. Txori txiki guztiak bildu, eta elkarren artean txio-txioka hizketan hasi ziren.

— Ezin dugu hemen utzi txorimalo gaisoa. Edozein laborari edo ehiztari etorri eta zapaldu egingo du.

— Ez horixe. Gurekin eramango dugu eta geuk zainduko dugu.

Hala, txoriek txorimalo txikia hartu eta heuren habiara eraman zuten. Txorikumeen artean jarri zuten, eta hauekin bizi izan zen, hauekin jan eta jolastu, bera ere beste txorikume bat bezala. Baina habiako hosto eta arantzek hazkura ematen ziotenez, sehaska bat prestatu zioten, titare baten barruan, eta hantxe eman zituen egunak eta asteak.



Hegan egiteko garaia iritsi zenean, txorikume guztiak eta txorimaloa adartxo baten gainean jarri ziren, ikasteko pronto. Txorikume guztiak ikasi zuten, banan banan, batzuek lehenxeago besteek geroxeago. Baina txorimalo gaisoak ezin zuen salto egiten zuen, bere beso eta anka iherrak aidean eragiten hasi, eta indar handia egin arren beti lurraren kontra jotzen zuen.

— Alferrik da —esan zion txori nagusiak—. Zure poxpolo beso horiekin ezingo duzu hegan ikasi.

Txorimaloen jostoratz buruetatik bi malko handi irristatu ziren, eta gainerako txorikumeak ere oso triste jarri ziren.

— Ez du axola —segitu zuen txori nagusiak—. Zu ere handitzen ari zara, eta laster galsoro batean jarri beharko duzu.

Eta egia zen: besoak eta zangoak, egunik egun indartu egiten zitzaizkion, gorputz osoa sendotu, eta burua ere handitu. Jadanik ez zen tita-

rean sartzen, eta handik puska batera, lehengo jostoratz buruen orde bi botoi distirante zituen begien lekuan; buruan, erreglamentuzko balaioia; hanketan bi baina-parda, eta besoetan bastoia eta guardasola. Ahoaren orde, zapata-zola askatua zuen bota zahar bat, moko moduan.

Txori artetik aldegitoko eguna iritsi zitzaion, baina ez zen betirako agurrik, gero arte baizik. Galsoro baten erdi-erdian geratu zen zutik, geldi. Han txoriek nahi adina jan zuten, txorimaloaren lagun eta adiskideak zirelako, eta beti aprobetxatzen zuten bere sorbalda gainean jarri eta elkarri kontu txikiak esateko.

Laborariak errieta egin zion, txori guztiei jaten uzten zuelako, baina txorimaloari ez zitzaion axola, ulertzen ez zuelako. Beti txorien artean, gizakien hizkera ikasi ere ez zuelako.

Xabier Mendiguren

irudia: J.M. Telleria

T **▲** **A**
M **PA** **A**
Y **PEL** **O**

☐ OFIZINARAKO MATERIALA
☐ ESKOLARAKO MATERIALA
☐ OPARIETARAKO ARTIKULUAK

Amerika, 2. Tfnoa: 88 89 80

20240 ORDIZIA

DIETETIKA - SENDA BELARRAK

O S A K I

Eloegi Kalea
Tfnoa: 88 93 62
LAZKAO

Oriamendi Kalea, z/g.
Tfnoa: 88 79 46
BEASAIN

Bertsolaritza Goierrin (eta II)

Bertsolaritzak Goierrin aurrera ere indartsu jarraituko ote zuen galdetuz amaitzen genuen orain hurrengo saioa. Eta eritziren bat edo beste ematen ahaleginduko ginela gaineratzen genuen. Egia esan, futurologia ez da nire espezialitatea. Guztiarekin ere, agindutakoa konplutuz zerbait molda dezadan.

Bertsolaritzak oraingoz tinko iraungo duela bistakoa da. Baina litekeena da bere horretan ez irautea, hau da, aldaketak izatea. Dagoeneko ere nabarmentzen da hori. Ez dut uste Lazkao Txikiren estilua eta Murua batena berdinak direnik.

Eta aldaketak txarrerako ala onerako izango dira? Aldaketa gehienak bezala, batzu onerako eta guk uste baino gehiago, kaltetarako. Mundu erreferentziala irekitzea, gai sakonak edo kultur maila altukoak tratatu ahal izatea, teknikaren dominioa eta beste gauza asko mesedetarako izango dira dudarik gabe. Naturaltasunean, txispa, ziria, umorea eta abarren aldetik galdu egingo du ordea.

Hasieran, gustoz, gogoz eta zaletasunez egiten zen berezko jolas edo jokoa zen bertsolaritza. Beste helbururik gabe, jendeak bertsosarekin berarekin gozatzen zuen eta, proportzioan, gaur baino jende gehiago inguratzen zen bertsolariengana.

Nola esan daiteke hori bertsoa telebistan, bertsoa irratan, bertsoa prentsan eta bertsoa nonnahi gabil-tzan honetan?

Egia da bertsoa komunikabideetan erruz dabilela. Baina egia da baita komunikabideetan ibili ezezik garai batean bertsoa bera zela komunikabide ere. Bestalde, afari, festa eta bilera gehienak bertsotan edo kantari amaitzen ziren. Gaurregun pubetako zaratsots artean urtzen dira.

Begiratu batera, bertsolaritza indarrean dago, baina artifizialki eusten ari ote garen susmoa dut nik. Berez askorik gustatu gabe, euskara, abertzaletasuna, moda edota politikaren izenean jende asko dabil alor horretan. Nik ez dut esango hori txarra denik, baina... sueroarekin elikatzea bezala jotzen dut.

Badago aztertu beharreko beste fenomeno bat. Dagoen eskea baino askoz ere bertsolari gehiago produzitzen du Euskal Herriak. Ondorioz, gehienak paroan daude. Edota, juxtuago izateko, «jornada reducida»n ari dira lanean. Beraz, bertsolari eskolen ordez ez al dira bertsozale eskolak hemen behar direnak?

Bromak broma, jo dezagun aurrera. Bertsolaritza inprobisatua ahoz-kotasunarekin estuki loturik dagoen lengoaia bat da. Eta hein handian, euskarak ahozko erabilpena bakarrik izan duen neurrian iraun du tin-ko bertsolaritzak ere. Dena den, le-

hen ere esan dut futurologoa ez naitela eta gure hizkuntza kultur mailan zeharo murgildu eta erabat normaliza dadinean, Jainkoak jakin zer gerta litekeen bertsolaritzarekin!

Hori bai, hizkuntza batek, edozein hizkuntzak, hiru alternatiba dauzka: ez zerurako eta ez infernurako, bere geldotasunean iraun; desagertu edo kultur eta goi mailako harreman sozialetarako tresna bilakatu. Nik uste, bertsolaritza inprobisatua lehengo kasu horretan moldatuko litzatekeela ongien. Zeren, hasieran esan dugun bezala, euskal kontzientziaren beste osagai batzuk ere babes handia emango bait lioke te bertsolaritzari.

Hala eta guztiz ere, hirugarren supostu horrek ez dut uste inor kezkatuko lukeenik, aitzitik horretxan atzetik gabiltza euskaldunok. **Nik behintzat pozik sakrifikatuko nuke bertsolaritzaren parte handi bat. Euskararen normalizazioaren amets hori egia bihur baledi, dena ere bai.**

Ni kezkatu, antropologok kezkatzen naute. Eta horiek ere pasatu dute area bertsolaritzaren galtzu honetan. Nik beldur handie diet, zeren antropologok gauza bitxi eta arraroak aztertzen dituzte. Etorkizunaz baino gehiago arduratzen dira izandakoaz. Ez ote gaitu batek baino gehiagok indio-erreserbekin gonbaratzen? Dena dela, ez gaude tajuz buruturiko lanen kontra. Eta errua ez da, noski, antropologoen.

Rufino Iraola Garmendia



GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 - Tfnoa: 88 87 02
20200 B E A S A I N



**Kirol jantzieta
espezialistak**

Domingo Unanue Enparantza 5
Telf.: 88 85 18



20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

KABI ALBAITEROAK

ANIMALIENTZAKO TRATAMENDUAK,
JANARIAK, PENTSUAK

Domingo Unanue Plaza, 6
Tfnoa: 88 91 62
ORDIZIA

URAREN ERARA JOATEA ONENA

Goierritarrak eta sagardotegiak

Etxean dagoenak etxeko berri bakarrik jakiten omen du. Ala dio esaera zaar batek. Egia dala antzematen erreza da. Baserrietako etxekoandreak ez dira amutsak ordea, ezaguera edo esperientziarik asko ere izango zuten berriz, eta laister billatu zioten kakoa esaera orri. Perira sarri-sarri joatearren gizonak asmatutako esaera edo aitzaki bat besterik ez omen da.

Onek ere badu bere itxura, baiña esaera orrek diona egia izanik, noizean bein bederik esan egiñekoak izatea ondo datorkigula eta komeni zaigula esango nuke. Jakiteak ez baitu ezer galerazten.

Ez da ba etxetik irteten ez garela-ko eta batetik bestera ibiltzeko aukerarik ez dagolako, baiña badira goierritarrok oraindik bear bezala ezagutzen ez ditugun tokiak: Sagardotegiak.

Sagardoa txotxean denbora gutxi samarrean egoten dala uste det. Negutik udaberrira arteko tarte ontan izaten da gainera, beraz, eguraldiak geiegi laguntzen ez duan garaian. Baserrietan sagardoa egiten bazan ere, sagardotegi asko etzan izaten leen ere Goierriin. Sagardotegirako beterrian—edo guk esaten degun bezala bee aldean—aiñako joerarik ere ez, eta, bat zaiako edo bestea zalako, sagardotegiak arrotz samar-rrak ziran goierritarrontzat.

Emen egiten zan sagardoa bee aldekoa baiño lodiagoa, gozoagoa eta motelagoa izaten zan. Sagarrak zer ikusia izatea baliteke, baiña ez dakit alde ori sagardoa egiten bear bezala ez genekigulako ez ote zan izango.



Beste esaera bat ere badugu Goierrian, uraren erara joatea dala onena esaten diguna. Au asmatu zuanak arrazoi zuala uste det. Aize sanoak goi ontan egongo dira, baiña aldapak ere bai, eta negua lenbizi onuntz irixten dan bezala, udaberriak bee aldeko sagastiak eta soro lauak emengo malkarrak baiño leenago laztantzen ditu. Goierriak bere lilurak ditu, eta saltzeko ez dauzkagun bazter politak ere bai, baiña bee aldeak ere bai bereak.

Uraren erara joatea ona den ontarra, leendik ezagutzen ez nituan bi sagardotegi ezagutzeko suertea izan det: ernaniko "Iparragire" eta Lasarteko "Soillane". Ernaniakoan upel batetik sagardo ona eta bestetik ohea edanez apaltzen ari giñala auxe pentsatu nuan: Errioxa ardo ederren lurraldea den bezala, Gipuzkoa sa-

gardo politena izango dala. Sagardotegietara gutxitan joaten geranak gozatu bat artu genduan, bainasarritan joaten diranak ere etzebiltzan asarre.

Lasartekoan ere egurastu bat artu genduan ba, Jainkoak nai bazuan. Bapo apaldu genduan bazan an trikitia, dantza eta bertsoa. "Gure kolejioak sagardotegiak". Nola ez sortu bertsolariak sagardotegietan? A zer nolako gozatuak artuko zituzten garai bateko bertsolariak, Txirrita "Kapitan" zutela!

Sagardotegietarako joera gure oiturarik ederrenetako bat izango da nire ustez. Alkooldun edariak gorputzarentzat txarrak dirala, danok dakigu. Gizartean kalte aundiak egiten dituztela ere bai. Sagardoak bai ote du gero ortarainoko ausardirik, pixka-pixkabat neurria artu ez-kero beintzat?

I. Olea

ARANTXA MERZERIA

Joxe Miel Barandiaran Enparantza, 3
Tfnoa: 88 76 15
ORDIZIA

TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA

BIOK, C.B.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

K.G.B.



New York - 4



AGUSTIN TXAPARTEGI.



LA UNION Y EL FENIX

ASEGURUAK

BEZALAKO KONPAINIARIK EZ DUZU INON AURKITUKO.
ZERBITZU-AUKERAN ETA SEGURTASUNEAN BERDINIK EZ DU.

JOXE TELLERIA

BETI PREST DAUKAZU ZURE ARAZO GUZTIAK KONPONTZEKO

Aseginolaza Anaiak, 1

Telf. 80 12 20 - 80 11 22

Z E G A M A

Kale Nagusia, 27

Telf. 88 26 43

B E A S A I N